

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko ekainaren 29a • II. urtea • 28. zenbakia • DOAN BANATZEKO



Goienka2a

Biblioporrak 2001: bailarako liburutegien proposamenak

KIROLAK

Elgetako lau t'erdiko finalak oraingo domekan jokatu dira /10

NIKOLAS SEGUOLA

"Europako gaztarik onenetakoak Idiazabal jatorri izendapena dutenak dira" /9

Eskoriatza, Aramaio eta Elgetako jai nagusiak asteburuan

Arrasateko San Juanak ahaztu eta jai giroa bailarako hiru herritan nagusitu da oraingo asteburuan. Eskoriatzan San Pedroak, Elgetan Ferixa Nagusia eta Aramaion San Martin. Bailarako beste bi herritan ere izango dira jaiak: San Pedro eta San Martzial Bergaran eta San Martzial Antzuo-

lan. Jaietan bete-betea aritzeko aukera non-nahi, beraz. Domeka izango da egunik garrantzitsuenetakoa: Eskoriatzan Euskal jai izango da, Elgetan ohiko azoka, eta Aramaion, herri bazkaria, bertsolariak... Bergaran milaka herritar bilduko dira San Martzialeko erromerian. /17

ARAMAIO

'Txirritola', herriko aldizkaria, gaur banatuko da

Txirritola aldizkariaren laugarren alea gaur plazaratuko da. Gai monografikoa landu du oraingoko alkatea Saharan egon zeneko bidaia hain justu. Betiko moduan, euskara hutsez eginda dago, zati bat euskalkian, eta herritar guztiek jasoko dute Txirritola euren etxebizitzetan, Goienkariarekin batera. Guztira 500 ale banatuko dituzte. /5

ATXILOTUAK

Natale Landa eta Xabier Arregi aske utzi dituzte

Natale Landa mondragoetarra eta Xabier Arregi 'Txapi' bergararra aske geratu dira bost milioi pezetako fidantza ordaindu ostean. Natale orain dela bi aste atxilotu zuen poliziak Premin Sanpedro eta Txus Goikoetxearekin batera. Xabier Arregi, berriz, orain dela hiru hilabete eta erdi. Biak ETA-Ekin auziarekin lotu dituzte epaileek.



Eguaztenean atera genien argazkia Oñatira etorri diren Txernobilgo neska-mutikoei.

ENEKO AZKARATE

UKRAINAKO AIRE KUTSATUETATIK IHESI, GEUREAN EMANGO DUTE UDA

Txernobildik Debagoienenera

Txernobilgo zentral nuklearrak 1986an sorrarazi zuen hondamendia jasaten ari diren 26 ume etorri dira aste honetan Debagoienenera. Hamasei urtetik beherako neska-mutikoak dira, eta Oñati, Arrasate, Bergara, Aramaio eta Elgetara etorri dira. Bi hilabete emango dituzte gure artean, abuztuaren 29ra arte. Oñatira etorri dira gehienak, 16 hain zuzen ere. Izan ere, Oñatiko hain-

◆ **26 UKRAINAR**
Ukraina aldetik 26 lagun etorri dira Debagoienenera, horietako bat, begiralea. Gehienak, 16 hain justu, Oñatira etorri dira

◆ **BI HILABETE**
Bi hilabete, abuztuaren 29ra arte, emango dituzte gure artean. Udalekuetan, kiroldegietan, kalean... ikusi ahal izango ditugu

bat familia elkartu egin ziren iaz, eta eurek egiten dituzte kudeaketa guztiak Ukrainako umeak udan

Oñatira ekartzeko. Besteak Txernobilgoen Lagunak elkartearen bitartez etorri dira. /3

Baliozkoa uztailearen 1etik 31ra.

BALIO-TXARTELA

500
€ 3,00

Hipermerkatuan 10.000 pezetatik gorako erosketetan erosketa txartela eta txartel hau aurkeztuta.



Erregaia ordaintzeko SABEKOko gasolindegian (Durango).

SABECO

Hipermerkatuak

ZUGIAN PENTSATZEN DUGU

HAIN HAINBESTE HURBIL





Avenida kafetegia

Eskaintza Fraiskoizuri, 6 / BERGARA
943 76 20 46

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak, pintxoak eta razioak
- Aurrez eskatuta menuak

Berezitasunak

- Fritoak
- Tripakiak
- Pintxoak eta ogitartekoak

Euskal giroan!



JATETXE GIDA

On egin!



Araotz merenderua

Eskaintza Araotz auzoa, 2 / OÑATI
943 78 35 26

- Menua
- Karta
- Garaian garaiko platerrak

Berezitasunak

- Etxeko txorizo eta odolosteak
- Aurrez eskatuta bildotsa burduntzian

Eguketik domekara zabalik



Baster-Alde

Eskaintza Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 150 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Zure ezkontza ospatzeko lekuri aproposena

Egunero zabalik



Gurea jatetxea

Eskaintza Durana, 32 / ARETXABALETA
943 79 20 64

- Menua
- Plater konbinatuak
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Ogitartekoak

Berezitasunak

- Alkatxofa beteak
- Penka beteak

Etxeko giroa!



Ibarra jatetxea

Eskaintza Araba etorbidea, 29 / ARETXABALETA
943 79 69 86

- Menua
- Karta larunbatetan
- Plater konbinatuak
- Gazte taldeentzat prezio bereziak

Berezitasunak

- Kokotea • Lupina
- Txuletoia • Almejak

Enkargurik ezean domekak itxita.



Larrinetxe jatetxea

Eskaintza Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15

- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak egun osoan.

Berezitasunak

- Pasta entsalada
- Bildotsa erreta
- Bakailaua gainerreta
- Etxeko postreak
- Legatza ondo eta txipiroiez beteta

- Martitzenetan itxita
- Abuztuan zabalik



Mitarte Garai

NEKAZAL TURISMOA

(Urkuluko urtegitik gertu)
Eskaintza Arentza auzoa / ARETXABALETA
943 79 17 51

- Menua
- Karta
- Enkarguak

Berezitasunak

- Bildotsa
- Etxeko gazta, txorizoa eta ogia

Astelenetan itxita



Zotz jatetxea

Eskaintza Zubillaga auzoa, 1 / OÑATI
943 78 35 45

- Eguneroko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandetan itxita

Txernobilgo umeak

Aurten ere gurera etorri dira uda igarotzera

ENEKO AZKARATE

Txernobilgo zentral nuklearrak 1986an sorrarazi zuen hondamendia jasaten ari diren 26 ume etorri dira aste honetan Debagoienara. Hamasei urtetik beherako neska-mutikoak dira, eta Oñati, Arrasate, Bergara, Aramaio eta Elgetara etorri dira. Bi hilabete emanango dituzte gure artean, abuztuaren 29ra arte.

Oñatira etorri dira gehienak, bi hain zuzen ere. Horieta bat, Kati Nikitiuk, hain begiralea. Izan ere, Oñatira hainbat familia elkartu ziren, eta eurek egiten dituzte kudeaketa guztiak Ukrainako umeak Oñatira ekartzeko. Arantza Zubia da etxera umeak ekarri diren horietako bat. Berak diosenez, "orain dela lau urte hasi nuen kontu honekin, baina lehen, Txernobilgo Lagunak elkartearen bitartez ekartzen genituen. Aurten 18 etorri dira gure bitarteen. Horieta, bi Elgetara eta Bergarara".

Oraingo asteen Debagoienara etorri diren gainerako ume ukrainarrak, bederatzi hain zuzen ere, Txernobilgo Lagunak elkartearen bitartez etorri dira. Urte horrek Gipuzkoa osoan zehar lan eta Zaratzen du eragina. Sei urtetik 16ra arteko 35 neska-mutiko ekarri dituzte aur-

ten Gipuzkoako hainbat herritara. Geurean, Bergara (2 ume), Arrasate (6 ume) eta Aramaio (1). Hamasei urtetik gorakoak ezin dituzte ekarri. Txernobilgo Lagunak elkarteak 1997an sortu zen. Elkarteko idazkari Marga Martinek *Goienkariari* adierazi dioenez, "urtetik urtera gehiago ekartzen ditugu. Gure asmoa gehiago ekartzea da, baina bi arazo ditugu: batetik, dirua; bestetik, ez dagoela nahiko familia ume hauek etxean hartzeko. Jendeak atzera egiten du. Askok uste dute ume hauek erradioaktibitateak kaltetuta daudelako kutsakorrak direla, eta hori ez da horrela. Elkartasuna beharrezkoa da".

130.000 PEZETA UME BAKOITZEKO

Txernobilgo ume bat hona ekartzeko 130.000 pezeta inguru kostatzen da (bidaia, aseguru eta notario lanak). Gastu horiei aurre egiteko, udalek dirulaguntzak ematen dituzte (Bergarako eta Arrasateko udalek erdia ordaintzen dute, eta Oñatikoak 700.000 pezeta eman zien iaz familia oñatiarrei). Horrez gain, enpresa pribatuak ere ematen dituzte laguntzak, eta zozketak, kultura emanaldiak eta abar ere antolatzen dituzte sosak batzeko. Egonaldiaren gastuak (janaria, jantziak, e.a.) hemengo familiaren kontura doaz.



Oñatira etorri diren Txernobilgo neska-mutikoak.

ENEKO AZKARATE

Arantza Zubia familia oñatiarren ordezkariak esan digunez, norbaitek diruz lagundu nahi badie, *Banoia Txernobilekin* izenean, Kutxan eta Euskadiko Kutxan ireki dituzten kontu korronteetan egin dezake.

BIONDAKO ONURAGARRIAK

"Era horretako ekimenak biondako, ukrainarondako eta euskaldunondako dira aberasgarriak, kultura eta ezagupen elkartrukea beti dira aberasgarriak eta". Tamara Zhurba Txernobil-

dik Oñatira etorri den taldeko begiralearen hitzak dira. Espainia aldean ere ibilia da ume ukrainarrek, baina Euskal Herria asko gustatu zaio, eguraldia, inguruak..., bere herrikoaren antzekoak direlako.

Katia Nikitiuk

Oñatira etorri den Txernobilgo umeetako bat

Hamalau urte ditut, eta, honekin, bosgarren aldiz etorri naiz Oñatira. Asko gustatzen da Oñati eta lagun asko izan hemen. Ni hartzen nuen familiakoak eta Txernobilgo lagunak asko gustatu ditut. Benetan oso gustatu eta gustura nago Oñatira etortzeko gogoz hartzen egoten naiz. Ukrainan, nire herrian, ezin ematen dut ia ezer osoa, baita lagunekin ere. Hemen, berriz, lagunekin kalera atertu, deskantsatu...



denetik egiten dut. Hona natorrenean oso erraz gizentzen naiz, baina gero, Ukrainan, berriz galtzen ditut hartutako kiloak.

"Hona natorrenean oso erraz gizentzen naiz, baina Ukrainan, berriz galtzen ditut hartutako kiloak"

Tamara Zhurba

Txernobildik etorri den begiralea

Oraingo zazpi urte ezagutu nuen Espainia. Itzultzaile lanak egiteko deitu ninduten. Bestalde, bigarren aldiz etorri naiz Oñatira. Esango nuke, Euskal Herria ezberdina dela, paisaia, pertsonen izaera eta itxura... Klima Ukrainakoaren antzekoa da. Tamalez, ez dakit euskaraz berba egiten. Osasungarria ez ezik, intelektualki ere oso interesgarria da munduan zehar ibiltzea, eta ume hauei oso ondo datorkie udako egonaldi




hau. Eta Euskal Herriarentzat aberasgarria da munduan ezagutua izatea; ume hauek hemengo irudia zabaltzen dute munduan.

"Euskal Herria ezberdina da, paisaia, pertsonen izaera eta itxura... Klima Ukrainakoaren antzekoa da"

Arantza Zubia

Oñatiko familia hartzaileetako bat

Etxeko guztiak, seme-alabek-eta, ondo hartzen dituzte. Zortzi urteko mutikoa eta 14 urteko neskatila ekartzen ditut. Neskatala laugarren urtea da geurera datorrena. Gaztelaniaz ondo egiten du eta euskara ere ulertzen du. Lotsati samarra da eta ez da ausartzen euskaraz jardutera. Osasun aldetik makal samar etortzen dira, arnasa hartzeko arazoak dituzte eta erraz nekatzen dira. Hemen dauden bitartean asko hobetzen dira, gizendu



egiten dira. Ezagun zaie berehala. Udalekuan ematen dute goiza. Arratsaldean, berriz, kiroldegira joaten dira eta Olakuan ere ibiltzen dira".

"Osasun aldetik makal etortzen dira, arnasa hartzeko arazoak dituzte eta erraz nekatzen dira"

BERGARA

PLAZA BERRIA KATAIBIAKO EREMUAN

Kataibiako orubea udalari utzi dio Santa Marina parrokiak

Orube hori azoka eta aisiarako plaza bihurtuko da

MONIKA BELASTEGI

Asteleheneko osoko bilkuran Santa Marina parrokiarekin hitzarmena sinatzea onartu zuten. Hitzarmen horren arabera, parrokiak Santa Marina eliza ostean dagoen lursaila erabiltzen utziko dio udalari, eta udalak, hantxe plaza bat egiteaz gain, hainbat obra egingo ditu eliza kanpoaldean.

Udalak denbora darama Santa Marina parrokiaren atzeko aldean, Kataibia plaza izenarekin ere ezagutzen den gunean, plaza egoki bat egiteko asmoarekin. Gaur egun, ez du erabilera finkorik; herritarrek autoa aparkatzeko erabiltzen dute, nahiz eta zuloz josita dagoen.

Eremua, baina, Santa Marina parrokiarena da. Hori dela eta, hitzarmena sinatu dute bi aldeek. Hitzarmen horren arabera, parrokiak eremua erabiltzen utziko dio udalari. Udalak, bere aldeetik, Kataibia plaza egiteaz gain, elizari hainbat hobekuntza egin beharko dizkio kanpoaldek.



Zapatuetako azoka Kataibiako plazan kokatzeko asmoa du udalak. MONIKA BELASTEGI

Hitzarmenari oniritzia asteleheneko osoko bilkuran eman zion udalak. EAJ-EA koalizioa eta PSE-EE hitzarmenaren alde azaldu ziren. EHK, aldiz, gaia mahai gainean uztea eskatu zuen, hitzarmena aurretiaz ezagutzen ez zutelako, eta "ez delako horren inguruan ezer eztabaidatu". Hitzarmenaren balorazioa egiteko orduan, EHrentzat "ez da batere orekatua, udalak karga ugari hartu dituelako bere gain, eta elizak, soilik, lurrak utzi

egin dituelako". Kataibiako plaza eraikitzen dutenean, zapatuetako azoka bertan egingo dute, eta aisiagune gisa ere egokituko dute.

XABIER ARREGI KALEAN

Xabier Arregi, 'Txapi', astelehenen utzi zuten aske. Martxoaren 11an atxilotu zuten Garzonen aginduz, eta ordutik Alcalá-Mecoko espetxean egon da. Hainbat herritarrek omenaldia egin zioten martitzenean.

OÑATI

GOMISTEGI HARROBIA

Harrobiak handitzeko baimena eskatu dio udalari

Gaur egungoaren bikoitza izango litzateke

AINTZANE IRIZAR

Maiatzean Gomistegiko harrobia handitzeko proposamena egin zioten harrobiko arduradunek Oñatiko Udalari, eta horretarako dagoen aukerari buruzko informazioa eskatu zuten. Orain, udala harrobia handitzeko aukera aztertzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera. Gaia aztertu ondoren, eta ezer erabaki aurretik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin eta Foru Aldundiko arduradunekin harremanetan jarri zen Oñatiko Udala. Esan bezala, oraindik ez dute erabakirik hartu, baina gaiaren gaineko hainbat irizpide helarazi zizkion udalari. Alde bateatik, kontuan hartu behar da harrobiak ez duela jarduera baimenik, ezta ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketarik eta eraberritzeko planik ere; izan ere, harrobia 1962. urtean hasi zen lanean, eta garai hartan ez zegoen horrelako beharrik. Orain, horiek guztiak tramitatzen dihardu.

Dena dela, teknikoek ustez, gaur egungo ustiatzea ez da handi eta ez luke eraberritzeko arazorik izango.

ALDAKETA HANDIEGIA ADITUEN USTEZ
Bestalde, ustiatzea handitzeari dagokionez, aldaketa handiegia izango litzatekeela uste dute, eskaera onartzekotan, ustiatzea bikoitza ekarriko zuelako. Gainera, Aizkorriko Parke Naturalarendako aurrez ikusita dagoen eremua hartuko luke zabalkuntza horrek; horregatik, Ingurugiro Sailaren oniritzia ere beharko du harrobiak.

Gaur egun, 93.000 metro koadro ditu ustiatzeak eta horietatik, 43.000 esplotatzeko asmoa dute. Adituen arabera, oraingo lur eremuarekin, beste hamar bat urterako lana dute harrobian.

Orain egindako eskaeran, harrobia beste 95.000 metro koadro zabaltzea eskatu dute. Udaleko arduradunen esanetan, lurre joko du behin betiko erabakia hartzeak, ondo aztertu beharriko gaia da eta.

Zertzelada

Harrobia 95.000 metro koadro zabaltzea eskatu dute. Aizkorriko Parke Naturalarendako aurrez ikusita dagoen eremua hartuko luke zabalkuntzak

ARETXABAETA

ZINE KLUBA ZABALEAN

Zine klubeko pelikuak aire zabalean eskainiko dira

Film komertzialak egongo dira ikusgai

AMAGOIA LASAGABASTER

Udako eguraldi onak aprobetxatuaz, herriko zine klubak aire zabalean eskainiko ditu pelikula. Horrela, uztailean, zine kluba herriko plazan egingo da ostegunero. Horretarako, kultura sailak lortuko du beharrezko material guztia.

Eskainiko diren pelikulei dagokienez, orain artekoak baino film komertzialagoak ikusi ahal izango dira aire zabalean.

Datorren ostegunean esaterako *The Matrix* filma emango dute. Gerora, *Snach* edo *La amenaza fantasma* moduko pelikula ere emango dituzte.

Aire zabaleko zine emanaldiak bukatzeko, berriz, film laburren bilduma bat gertatu dute zine klubeko lagunek. Hori uztaileko azken ostegunean izango da, hilaren 26an.

Pelikula guztiak, orain arte moduan, gaueko 22:30etik aurrera izango dira.



Matrix da zine klubean eskainiko den pelikuletako bat.

ANTZUOLA

Jai Batzordeak ia dena prest dauka uztailaren 12rako

A. I.

Apirilean hasi zen elkartzeko Jai Batzordea, eta bi aste barru izango diren jaietarako ia dena prest dute dagoeneko. Egitarau zabal prestatu dute. Herriko hainbat talde eta elkarte aritu dira jaiak antolatzen: udala, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Danok Bat, Gaztetxea, jubilatuek, kintoak, Oinarin, Txistulariak, Eperra, Olalde, Pausoka eta hainbat koadrilatoko ordezkariak.

Datorren asteburua jaien ataria izango da. Izan ere, uztailearen 8an, domekan, jubilatuen bazkaria eta afizionatu mailako txirindulari froga jokatu dituzte. Baina jaiak, ofizialki, uztailearen 12an, eguna, hasiko dituzte. Umeen eguna izango da lehendabizikoa egun hori.

Alarderrako entseguen ere datorren egunean hasiko dira. Uztailearen 5ean, 10ean eta 11n izango dira, gaueko 21:00etan, frontoian. Eskupetari eta danborrarentzat izango dira entseguok. Behar beste danborrari ez dago, gainera; beraz, ia jendea animatzen den.

ELGETA

Ibarreko jendea Elgetako jaietara gonbidatuta

IBAN ARANTZABAL

Halaxe da bai, hamaika ekintza antolatu ditu jai batzordeak jaiak sekula baino indartsuagoak izan daitezkeen. Lan handia egin dute eta horren fruitu da ateratako egitaraua. Nabarmen hasita, zer nabarmendu ere zaila da, baina badaugu ekintza berririk zein berreskuraturik. Asto-lasterketa, esaterako, aspaldi jokatu barik izan bada ere, dagoeneko zazpi astok eman dute izena. 25.000 pezetako saria eramango du irabazleak. Batzuk ikusi ditugu Salbadorren behera entrenatzen.

Kantu poteorako, eta betiko la-la-la-la bazterrean lagatzeko, jai batzordeak prestatutako fotokopiak izango dira lagun. Antzerkia ikusteko gonbita ere egin digute batzordekoek. Emigrazioa landuko da eta suzko errubera eta guzti izango ei da. Gaztetxean, betiko legez, kalitateko kontzertuak eta plazan, aspaldi Elgetan ikusteko gogo handia dagoen mariachi taldea. Jorge Negreteren, Pedro Infanteren eta Javier Solisen bertsoak egingo dituzte bolero eta bolero artean.

ESKORIATZA

Sekula baino jai egitarau osatuagoa aurtengoa

ENEKO AZKARATE

Inoiz baino egitarau osatuagoa eta ederragoa prestatu dute aurtengo San Pedro jaietarako. Atzo, eguna, hasi ziren txupinazoarekin eta nagusien danborradarekin, eta domekara arte iraungo dute. Domeka izango da egunik garrantzitsua, Euskal jaia izango da eta. Baina, beste egunetan ere izango da zerekin gozatu. Esaterako, "Kupeletan ertonka" ikuskizunarekin. Gaur, egubakoitza, arratsaldean izango da hori. Trikiti, bertsoa eta dantza aldi berean uztartzen ditu ikuskizun horrek. Beste batzuen artean, Peñagarrikan eta Egaña bertsoariak eta eta Jon Maia dantzariak hartzen dute parte bertan. Azpimarragarria da, era berean, gaur gauean izango diren pilota partidu ikusgarriak.

Horretaz gain, aurtengo, zapatu gauerako dantza ikuskizun aparta iragarri dute, Ekaitza taldearen "Ekaitzaren garrasia" hain zuzen ere. Denerakoak eta denentzako beraz, aurtengo San Pedroetan. Udalak 9 milioi pezeta gastatuko ditu jaietan.

Alkateak Saharara egin zuen bidaiia zehaztasun osoz Txirritola aldizkarian

TXIRRITOLA aldizkariaren laugarren alea gaur plazaratuko da. Gai monografikoa landu du oraingo alkatea Saharara egon zeneko bidaiia, hain justu. Betiko moduan, euskara hutsez eginda dago, zati bat euskalkian, eta herriar guztiek jasoko dute Txirritola euren etxebizitzetan, Goiengkariarekin batera. Guztira, 500 ale banatuko dituzte.

Txema Abarrategi Kultura irabazlearen esanetan, kazetari bakarrak egiten du lan Txirritola aldizkarian, beti ere, kolaboratzaileek lagunduta. Baina, hain justu, horixe da faltan gehien sumatzen dena: herritarren kolaborazio handiagoa, hau da, gutunak, iritzi artikulua eta horrelakoak bidaltzea hain justu. Edozelan ere, hiru hilabete eta gero, badator laugarren alea. Gaur, beraz, ohiko Goiengkariarekin batera, Txirritola ere bai.

EUSKARA TEKNIKARIA
Bestalde, euskararen normalizatzarako teknikari bat kon-



Aldizkarian agertzen den irudi bat.

tratatzea nahi du udalak. Urtebeterako lanpostua izango da, egun erdiko jardunaz. Eta, edozein aurkeztu ahal da, beti ere, erdi mailako tituluren baten jabe bada, euskararen 4. Hizkuntza Eskakizuna badu eta Office 2000 eta Windows 98 programak erabiltzen badaki, besteak beste. Interesdunak uztailaren 13a baino lehen aurkeztu beharko du eskaera Aramaio Udalean.

Arazoa konpondu ezinda dabilta oraindik, udala eta tabernariak

Isunak barkatzeko eta sonografoak kentzeko eskatu dute tabernariak

U.M.

Arrasateko tabernarien elkarteak, lau tabernari ipinitako isunak barkatzeko eskatu dio udalari. Halaxe jakinarazi dute komunikabideei emandako prentsa oharrean. Hain justu, udalak, bostehun mila pezetatik milioi bat eta hirurehun mila pezeta bitarteko isunak jarri dizkie Mondragoeko lau tabernari orduetgia ez errespetatzeagatik. Aipatutako taberna horietan sonografoak ipini zituen udalak, eta gailu horiek jasotako informazioaren arabera zigortu ditu. Hori dela eta, isunak kentzea eskatzeaz gain, sonografoak kentzeko eskaria ere egin diote tabernariak udalari; edo, behintzat, oraingo auziari konponbideren bat aur-

kitu artean. Izan ere, tabernariak adierazitakoaren arabera, "orain indarrean dagoen ordutegia ez dator bat gure ohiturekin".

Bestalde, prentsa oharrean adierazi dutenez, egia da zenbait taberna oraindik ez daudela gaur egungo legedira egokitu. Eta horri aurre egin ahal izateko mugatasuna eskatu diote Arrasateko Udalari.

Bukatzeko, herriko langileak direla, eta diru sarrerarik garrantzitsuena asteburuetan izaten dutela kontuan hartzea ere eskatu dute. Izan ere, oraingo ordutegi mugatuarekin, herriko tabernak ixten dituztenean, gazte arra-

satear askok kanpora irteteko beharra izaten dute gaueko ordu txikietan. Hori dela eta, ordutegiari dagokionez, lege bigunagoak ezarri ditzala eskatu diote udalari. Bestalde, Arrasateko tabernariak, Alderdi Popularre-

ko ordezkariak izan ezik, gainerako alderdi guztiekin berbetan ere aritu dira, konponbide bila. Edozelan ere, oraindik ez dute adostasunik lortu eta, gainera, badi-rudi Mondragoeko udalaren eta tabernariaren arteko auzia ez dela konpontzeko batere erraza izango.

Zertzelada

Tabernarien ustez, oraingo ordutegi mugatuarekin, herriko tabernak ixten dituztenean, gazte arrasatear askok kanpora irteteko beharra izaten dute gaueko ordu txikietan



Arizmendi
ikastola
LANBIDE HEZIKETA

Moduloak

Eraikuntza
(Proiektuak)

Osasuna

Kirola

Ingurumena

Ikastola berritu baten eskaintza

Lanbide berrien aukera

Praktikak enpresa bermatuetan

Ikasketak ordaintzeko lana

Arizmendi, Koop. E.

Arrasate pasealekua 10 • 20500 Arrasate
Tel: 943 77 20 25 • Faxa: 943 77 00 73
svhziklo@conet.com
www.arizmendikoop.com



oihuka
eskatzen
ari zinen



mugikorrak



fax mugikorra



informatika mugikorra



smartphone

Gogo handiz eskatzen ari zinen. Behar zenuen. Telefonía mugikorrek benetako profesionalak, **movitel2000** eta **Telefonía MoviStar**. Gipuzkoan eta Nafarroan gehien zabaldu den telekomunikazio-taldea, Arrasaten daude orain. **Mugikorrak, osagarriak, enpresako telefonía, aholkularitza pertsonalizatua eta aitzindari baten prezioak...** Zure komunikazioetarako imajina dezakezun guztia, Arrasaten Biteri kaleko 15 zk.an duzu. **Azkenean.**

- **DONOSTIA** Toribio Alzaga - Tel.: 943 46 09 63
- **BEASAIN** Oriamendi-Etxe Ubi - Tel: 943 80 50 89
- **IRUÑA** Irunlarrea,6 - Tel: 948 19 70 72

Banataile Ofiziala:



Biteri Etorbidea, 15 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 77 21 33 • Fax: 943 77 21 34

www.movitel.com - arrasate@movitel.com



Zabalik

MARTIN
JAUREGI ALTZO

Zakil kaperak

Azken urte hauetan gazteen eta hain gazte ez direnen artean "despedidak" egitea modan jarri da. Edozein aitzakiak balio du: ikasketa bidaiak, ezkontzak, lan aldaketak...

Honaino dena ondo, Antropologia giza kulturaleko edozein libururi heltzen badiogu, gizakiak, gizakide denetik, bizitzan gertatzen diren hainbat gertaera (jaiotza, nerabezaroa, hilekoa, ezkontza, heriotza...) ospatzeko eta erritualizatzeko joera duela nabaria da. Ospakizun horien bitartez komunitatearen onarpena lortzen da, eta taldean partaidetza aktiboa baieztatzen dute.


Europa erdialdeko nekazari gizarte txikiak honelako erritualak eta, batez ere, ezkontzarekin lotuta zeudenak liskarrak ekidin eta ohiko sendiaren egitura sendotzeko erabiliak izaten ziren. Mozorro ospakizun baten bitartez, gainerako auzokideei pertsona horren estatus aldaketa jakinarazten zieten, aurrerantzean, gazte denborako arinkeriak ahaztu eta ezkonduen ardurak eta betebeharrak izango zituela adierazita.

Gaur egun, pentsamendu mitikoaren edozein arrasto galdu dugula, zeharkako erritu hauetan itxura eta azalergia nagusitu egiten da. Teknologia berriek ematen dizkiguten abantailak erabili arren, giza kontrol beraren pean bizi gara. Urrezko domina merezi dugu, komunitate txikien arteko elkartasun ohiturak baztertua giza kontrolari dagozkionak sendotu egin ditugu. Horrela, gizarte honetan sarraila fisiko eta psikologikoak gero eta ugariagoak dira. Honen guztiaren adierazle, giza subkontzientean beldurrek larunbatero bisitatzen gaituzte eta ordenadoreetan, aurrerapenetan eta goi mailako ikasketetan hezitako gazteek gomazko zakil kaperak buruan jantzita hutsa eta lotsaren pentsaera dakarkigute.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com



Gutun irekia

Paperezko orri zuri baten aurrean jarri naiz, eta idazle batek sentitzen ei duena sentitu dut, hainbeste esateko! eta nola antolatu...?

Lehenengo eta behin, eskerrak eman gura dizkiot aldizkari honi, nire inguruko jendearen, nire sustraian, nire betiko ingurunearen aurrean gauzak argitzeko aukera eman didalako. Oso zaila litzateke pertsona guztiari nire sentimenduak banaka azaltzea, eta horretan datza gutun ireki honek.

Gaur, pixka bat bakarrago geratu naitzen egunean, nire bakardade sentimenduak noiz eta nola hasi ziren azaldu dezaket. Ziur nago, euren baitan euren burua amatzat daukatenez ulertuko nautela.

Nire bizitzaren zati handia *ama izateak* markatu du, guztiz ase nauen lan zail eta atsegingarria. Nire seme-alabak hazten ikusita, gure gurasoek gu hazteko zenbat borrokatu ziren ulertu dut: badaude bizitzan, irakasten ez diren gauzak, eginarenekin ezin diren gauzak, eta nik, ama izatearen lan magiko horri heldu nion, alaba izandakoaren esperientzia hutsarekin. Nire hiru seme-alabak jaio ziren, eta eurak hazteari eta munduarekin harremanetan jartzeari ekin nion, bizitzaren nire esperientzia onak eurari helaraziz, nirekin beste batzuek lehenago egin zuten bezala, amen lanetako bat hori delakoan bainago... Eta ikaragarri gozatu nuen...!

Itzelezkoa da, hazten dituzun seme-alaben bitartez nola ikasten duzun amaren *egin-beharra*, zeure barnetik seme-alabak edukitzean eta eurak, munduan egon daitezten, askatzen joatean datzala. Eta seme-alabak zurekin geratu daitezten soilik bazara ama, ez zara ama ona...

Horrela esanda, lan bihozgabea ematen du: maitatu dituzu, zaindu dituzu, hazi dituzu, hain zuzen ere zuek alde egin ahal izan dezaten. Baina horretan ez dago bihozgabea den ezer, aitzitik, hori da ama izatearen gauzarik zoragarriena: seme-alabak hazi, norekin egon nahi duten modu askean aukeratu dezaten.

Aipatu beharra daukat, ibilbide horretan, gure gurasoek erlijioa irakatsi zidatela balore modura. Giro katolikoan bizi izan nintzen, eta ondorioz, Jainkoarengana jotzen nuen poztasunengatik eskerrak emateko, ezbeharren aurrean erregutzeko, eta gure bakardadean lagun gintzan.

Nirea bilakatu nuen gure gurasoen Jainko horrek, ama bezala egin beharrekoetan ere lagundu ninduen, eta oso hurbil izan nuen. Ez zitzaidan zaila izan hurbil izatea, seme-alabak haztearen gozamenen lagun modura...

Nerabezarora heldu zen... gazteek haurtzarora uzten dutenean jasaten duten *banaketa* hori, amek nolabaiteko beldurrez espero dugun aro hori, seme-alabak bidetik okertu, drogak hartzen hasi edota alferrik galduko zaizkigula pentsatuz... eta nire seme-alabak nigandik banandu ziren, guztiak banantzen diren bezala, hau da, geroago berriz itzultzeko. Baina nirekin ezin izan zuten askatasunez aukeratu...

Nire seme-alaben atzean, bere eskaeretan fanatikoa den talde erlijiosoan zegoen, bekataria kritikatzeko duen Jainko kupidagabe eta justiziazalearen jarraitzaileak... Eta orduan, nire baitan, oraindik bizirik dagoen baloreen arteko kontrajarpaena agertu zen, nire familiarekin berriz egoteak bakarrik lasaitzen duen kontrajarpaena. Ez zidaten ba esan, Jainkoak bekataria maitatu, bilatu eta beragana biltzen dituela...? Ez zidaten ba esan, gizon-emakume askak hazi behar genituela...? Nola liteke nire seme-alabek askatasunez aukeratu ez izana eta, eurek "bekatari" deitzen zituztenak Jainko berberaren izenean baztertezea...?

Nire barnean zerbait hautsi zen. Ulertzen ez nituen gauzak zeuden... Aurrean neukana ez zen nerabeen banaketa hutsa, aurrean neukana, nire seme-alaben askatasuna mugatu eta talde erlijiosoan moduan euren nahia bereganatu zuen *ama gaiztoa*

zen. Gainera, bera ona izatearen itxurak eginez, ni gaiztoa eta txarto bideratutakoa banintz bezala eta ezer ulertuko ez banu bezala.

Ez nion Jainkoari inoiz hutsik egin, ez nuen bera ukatu, ezta iraindu ere, "nire hurbileko norbaitek" Loiola taldearen aldizkarian idatzi duen bezala. Nire etxean, Jainkoa, haztean ondoan izan dudana balorea da. Nire aurrekoek emandako baloreen arabera bizitzeko, ez dut behar Jainkoaren izenean gazteei askatasuna kentzen dien talderik; eta horrexegatik, Bera hurbilekoa dudalako, Jainkoarekin biziki haserretu nintzela esan dezaket, eta ez nuela ulertu zergatik banatu zituzten nire alabak nigandik *ustezko jainko* baten izenean.

Gaur egun guztiok dakite nire bihotzaren heren bi klausurazko komentu batean daudela. Sufritu egiten dut eta poztu egiten naiz ikusten ditudan bakoitzean, eurak besarkatzeko irrikitan egoten naiz, eta, hauteskunde orokorrak daudenean (hauteskunde autonomikoetan ere ez), bozkatzeko irreten direnean soilik egin ahalko dudala pentsatzen jarduten dut.

Ba ote dago, nik nire alaba musukatu ahal izateko Gobernua aldatu behar dutela pentsatzea baino gauza zentzugabeagorik?

Eta hemen nago... ama modura ditudan nahiak, Jainkoaz daukadan ideiarekin eta egunerokotasunarekin lotzen ahalegintzen.

Espero dut gutun ireki honen bitartez, urte latz hauetan nitaz zerbait jakin duzunongana heldu izatea, eta lehenago ulertu ez nauzueno, berba hauek zeozer argitzea.


Azken ideia bat: uste dut *talde erlijioso fanatiko* horrek "nire konbertsioaren eta bide onerari itzultzearen aldeko" otoitz gurutzada proposatu zuela. Espero dut nire Jainko Onak, otoitz horiek beste zerbaiten aldekotzat hartzea, hau da, ni eta nire sendiarentzako osasun ona, nire ilobak ezagutu ahal izatea, nire sendia batuta egon dadila edo "loteria egokitu daki-gula", eta ez ditzala hartu familiak deusezteko balio duten konbertsio fundamentalisten aldeko otoitz modura.

Ez nuke nahiko zuei inoiz antzerako ezer gertatzea. Baina jazo zaizueno edo horretan zaudeteno, nik lagundu zaitezket eta zuekin egon naiteke.

Eskerririk asko nirekin egon zaretenoi.

ISABEL OJANGUREN
Elgeta

Olatz eta Patri



MIKEL ARROIABE

Eztabaida

Drogak legeztatzeari buruzko eztabaida ez da oraingoa. Drogaren arazoak denok kezkatzen gaitu, modu batean edo bestean, askori eragiten digulako. Askok

esaten dute arazoa konpontzeko modu bat legeztatzea dela. Horien iritziz, narkotrafikoarekin eta mafiekin amaitzeko, kalitatea bermatzeko edota drogazaleak gaizkile bezala ez har-

tzeko, beharrezkoa da drogak legeztatzea. Beste batzuen iritziz, berriz, legalak ez diren drogak legeztatzeak ez luke arazoa konponduko, oso konplexua eta sakonekoa baita.

Zer deritzozu drogak legeztatzeari?

Drogak legeztatzeak ez ditu arazo guztiak konponduko



ARANTZAZU LOIDI
Drogamenpekotasunen prebentziorako teknikaria

Drogarena gai korapilotsua eta zabala da eta legeztatzeak ez litzuke konponduko arazo guztiak. Hainbat arlotan hobetu egingo litzateke, baina beste hainbatetan ez. Drogak legezt kanpo egoteak hainbat arazo sortzen ditu eta onartzen dit. Esaterako, substantzien adulterazioa eta horrek ekar ditzakeen osasun arazoak, bizimodu normala egiten duten eta legeztatu bako drogak kontsumitzen dituzten pertsonak legezt kanpo uztea... Baina, hori kontuan izanda ere, argi dago drogak legeztatzeak ez duela mendekotasunaren arazoa konponduko. Eta mendekotasunak osasun edo lege arazoak sor ditzake, baita marjinazio arazoak ere. Alkoholaren mendekotasuna dutenak, esaterako, lege arazoetan sar daitezke eta hor dauzkagu hainbat adibide: auto istripuak, tratu txarrak familietan...

Hala eta guztiz ere, drogen kontsumoa arautu beharko litzatekeela uste dut: heziketaren bitartez, kontsumoa ez zigortuz, promozioa eta publizitatearen bidez... Baina legeztatzeak, besterik barik, ez luke arazoa konponduko. Gainera, zelan legeztatu eta non? Edo nork produzitu? Nork, nola, non eta nori saldu? Erantzuteko zaila diren galdera ugari. Bestalde, droga saltzaileek arauak beteko dituztela zelan ziurtatuko? Alkoholaren eta tabakoaren kasuan jende gaztea erabiltzen da salmenta bultzatzeko. Orduan, drogen salmenta arautu eta kontrolatzea gobernuen ardurapean egon arren, zelan ziurtatu arauak beteko liratekeela? Eta merkatuaren arapean mugitzen den gizarte kapitalista honetan, nork ziurtatuko luke legea betetzen dela? Zalantza gehiegi.

Drogaren gaia normalizatzearen aldekoa naiz, legeztatu behar den edo ez den legeztatu behar eztabaidatu beharrean. Gaia konplexua da eta legeztapena ez da panazea. Argi eduki behar da hainbat arlotan hobe daitekeela, baina marjinazioaren arazoa, osasun arazoak... ez lirateke konponduko. Bestalde, diru zuriketaren eta narkotrafikoaren gainean berbetan ez naiz hasiko. Ni baino gehiago dakitenek jardungo dute horretaz, baina hain urrun joan gabe, eguneroko bizitzan oinarrituta, alkoholaren inguruan sortzen diren hainbat eta hainbat arazo, horretan iraungo lukete drogak legeztatu arren. Arazoa ez da droga. Honen erabilera baizik.

“Salmenta arautu eta kontrolatzea gobernuen ardurapean egon arren, zelan ziurtatu arauak beteko direla?”

Bizi dugun giza sistemaren sintoma



JONE BEITIALARRAN-GOITIA
Drogamenpekotasunen prebentziorako teknikaria

Galdera konplexu honi erantzuna emateko, errealitate konplexu hau kontuan hartu beharko dugu: droga egon den, dagoen eta egongo den mundu batean bizi garela. Beraz, azken helburu bezala drogaren desagertzea, errealitate honi uko egitea da. Hau da drogaren ilegalizazioak jarraitzen duen bidea.

Azken hausnarketa hau jarraituz, drogaren arazoa, bizi dugun giza sistemaren sintoma dela ondorioztatuta daiteke; sistema gaixo dagoenaren seinale. Hau dela eta, ezin dugu gure ekimena sintoma honen desagertzen soilera bideratu (ilegalizazioak bilatzen duena). Sistema gaixoari eta bertako kideei irtenbide eta baliabide errealek eskaini ahal izateko, sistema horren barnetik hauteman beharko dugu drogaren inguruko ekimena, efektiboa eta erreala izan dadin.

Gizakiok gure bizitza sistemari buruzko hausnarketa egin beharko genuke, droga, guztioi dagokigun arazo bezala hautemanez; ikuspegi marginalak, legalistak eta moralistak alde batetara utziz, eta gizarte, komunitate, osasun, eskubide eta arduraren ikuspegi gureganatuz. Gai honi buruzko eztabaida kaleratu egin behar da, mundu marginalaren itzale-tara mugatu gabe.

Drogari buruzko informazio argia eskaintzearen beldur garela iruditzen zait, bide honetatik ezjakintasunera kondentzen ditugularik haur eta nerabeak. Mundu ilegal den heinean, informazioa debeku eta beldurrean oinarrituko da eta gure arduraren erantzukizun pertsonala ezeztatuko ditu. Ez digute erabakiak hartzen uzten, ezta erabakiak hartzeko prestatzen. Mundu ezkontu eta iluna bihurtzen da eta ilegalizazioaren bidez errealitate hau gehiago zuloratzen da, eta arazoa azalean bizi dutenen egoera, eta gizarte osoaren egoera ere zulora doaz.

Nik ez dakit zein den irtenbiderik egokiena, baina legeztatzea, bide zintzo eta garbia dela iruditzen zait. Drogak legeztatzen diren gizarte batean, kontsumitzaileak direnak eta ez direnak gizarte beraren partaide bezala kontsideratzen dira, eta posible egiten da guztion artean komunitatea osatuz gizarte osasuntsuago bat eraikitzea.

“Drogak legeztatzen diren gizartean, kontsumitzaile direnak eta ez direnak gizarte beraren kide onartzen dira”

Gora eta Behera

GLOBALIZAZIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA



Munduko jauntxoek ezarri nahi diguten gizarte eta ekonomia eredu perfektua, behar handienak dituzten herrien eta gurea moduko herri txikien kultura suntsitzean oinarritzen da. Ezarri nahi diguten ereduaren aurka lan handia daukagu egiteko.

ELGETAKO GURASO ELKARTEA



Goibeko kultura elkarteak, Espaloia Kafe Antzokia proiektua aurkeztu zuenetik urtebete pasatu den arren, oraindik ez dutelako kontra egoteko arrazoi bat bera ere plazaratu. Aretoren aldeko arrazoiak asko dira irtenbidea arrazoi barik eteteko.



OXEL EROSTARBE
Elgetako Goibeko elkartekoa

Koplak

Kintoen ohitura

Santa Ageda mutilak ta San Joan bezpera, aspaldiko ohitura lehengoa ote da?

Plazara ekarri dute tantaia, makala baina hori altxatzeko koadrila makala.

Ohitura bete ohi da zintzo urtez urte baina azken aldian zatartu egin dute.

Etxafleroak botaz bazterrak txikitu ta horrek “gizonago” sentiarazten ditu?

Mutilak bihurtu nahi gizon itxurakoa ia gizontzen diren Santa Agetarako.

Kinto berri horiei nire apustua: ezetz ondo ikasi dantza eta kantua.

ARANTZAZU LOIDI

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Bidezkoa da beste futbol talde batzuegandik dirua jasotzea irabaztearren?

Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA:
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin

SAILETAKO ARDURADUNAK
Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Iker Barandiaran (Asteko gaia),
Goio Arana (Diseinua),
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Aitziber Langaran

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

Nikolas Segurola (Matxinbenta, 62 urte) Arantzazuko artzain eskolako koordinatzailea da. Orain dela 41 urte etorri zen Arantzazuko santutegira eta 1965a ezkerreko Gomistegi baserrian bizi da, santutegitik gertu. Hantxe dago Euskal Herriko artzain eskolarik bakanenetakoa eta han bertan egiten dute Idiazabal erako gaztarik onenetakoa; orain ere, Gomistegiko gazta bati eman berri dio Espainiako Nekazaritza Ministerioak ardi-gazta onenaren saria.



ENEKO AZKARATE

ENEKO AZKARATE

Toki atsegina da Gomistegi eta paraje ederrean dago, gainera.

Hala da, bai. Hemen denetik egin izan dugu eta era guztietako jendea egon izan da. Oraindik orain Arantzazuri buruzko liburuak idazten jardun dugu eta niri egotziz zait Gomistegiri buruzko atala idaztea. Horixe azpimarratzen dut liburu horretan, hain zuzen ere, denetarikoa egon direla hemen: drogamenpekotasuna dutenak, gotzainak, hiesdunak, iheslariak edo lehendakaria. Ardanzak behin gurekin afaldu zuen hemen. Frantziskotarrak garen neurrian baserriko ateak mundu osari zabaldu behar dizkiogula uste dut. Bestalde, behartsuen alde lan egitea egotziz zaigu eta artzaina, herrian oso errotuta izan arren, nahiko baztertuta sentitu izan dela uste dugu.

Eskuz egindako ardi-gaztarik onena da Gomistegikoa...

Horrela onartu digute, behintzat. Baserri honetan hazitako ardien esnearekin egindako gazta saritu dute. Nire ustez, Europako gaztarik onenetakoa Idiazabal jatorri izendapena dutenak dira. Oraindik gure egindakoa izan da onena, baina horrenbeste bat izan daiteke. Edozainera izan gintezke, baina ez litzateke harritagarria izango hurrengo sariketaren batean Euskal Herriko gazta bat izatea onena. Lehenago ere Pirinio inguruetakoa artzain artean urrezko domina lortu genuen. Urdetxe de Urgell-en orain dela bi urte, eta iaz, bestalde, Felix Etxezarreta arabarrak erabiarazi zuen gaztarik onenaren saria Espainian oso artzainen artean. Ez dakit konfirmatzen garen zein gazta ona egiten dugun Euskal Herrian.

Eta zergatik da, bada, hain ona Idiazabal erako gazta?

Administrazioa zein artzainak lan izugarria egiten ari dira. Eusko Jaurlearitzak erabazitako Mendikoi erakundeak lan handia egiten du artzainak hezten. Eta izateko aipatzekotan, ez nuke ahaztu nahi Jose Antonio Otxandorena irakasle nafarra. Idiazabal gazta egiten dugunoi asko erabazitako digu. Espainian beste inon egin ez dute lana egin da hemen. Harrokeria horri, baina lotsa barik, aitortu beharra dago hori.

Zein da gazta onaren sekretua?

Nire ustez, ez dago sekreturik. Beharrezkoak gure egiten dugun gazta bezain onak egin ezaketan orain dela 30 urte. Lehenago, esnea, bera zen, eta gazta nola egin bazekiten, baina gaur egun erraztasun handiagoak ditugu esne garbia lortu

Nikolas Segurola

GOMISTEGI BASERRIKO FRANTZISKOTARRA

“Europako gaztarik onenetakoa, Idiazabal jatorri izendapena dutenak dira”

MERKATUA

“Gauzarik txarrena ere sal daiteke, saltzen jakinez gero. Euskaldunok horretan egiten dugu huts. Egiten badakigu, baina saltzeko ez gara oso iaioak”

ARTZAINZUA

“Artzain izateko bokazioa behar da, oso lanbide gogorra da eta, baina etorkizuna ikusten diot, gauzak ondo eginez gero”

eta gordetzeko. Hor dago koska, hau da, esne garbia zelan lortu jakitea. Alde batek, ardiaren errapatetik atera dadila esne garbia, hau da, inolako gaixotasun bakoa izan dadila. Eta, hortik aurrera, erabilera garbia izan dezala. Esne ona eta garbia izan arren, gazta egiten duenak ez badauka inolako arretarik eta saiatzan ez bada gazta onik egiten, ez du sekula lortuko. Era berean, gaztagaia onenak ere ez du gazta onik egingo esne txarra baldin badu. Hortaz, esne ona eta garbia edukitzea eta egi-

teko orduan beharrezko baldintzak bete-tzea da garrantzitsua.

Zela bururatu zitzaizuen Espainiako Nekazaritza Ministerioaren lehian aurkeztea?

ENBA sindikatukoek animatu gintuzten. Uste dut Idiazabal erako 13 bat gazta bidali zirela. Denera, maila guztiak kontuan izanda, 180 gazta-edo ziren. Ardi-esne gordinarekin egindako gazten mailan esku hartu genuen, duda barik, maila garrantzitsuenean. Cañete jaunaren tele-

grama ere jaso genuen lehengo egunean gu zorientzeko.

Zer egiten duzue irabazitako sariarekin?

Orain arte irabazi ditugun trofeo gehienak Arantzazuko ostatuan daude. Hantxe saltzen dugu hemen egindako gazta. Inoiz saldu izan dugu ferietan-eta, baina osterrantzean Arantzazuko ostatuan saltzen dugu.

Zenbatean saltzen duzue?

2.100 pezeta kiloa. Arantzazun badira garestiago saltzen duten inguruko artzainak ere. Baina kontuan izan behar da toki berezian saltzen dutela, hau da, Arantzazuko bisitatzailea jende asko etortzen dela eta askok eta askok oroigarri moduan erosten dutela gazta.

Ketua ala ketu gabea zen saritutako gazta?

Ketu gabea. Bietarikoak egiten ditugu, baina kanpaina hasieran zenez, ez geneukan keturik.

Zure gusturako, zeintzuk hobeak?

Berri samarra bada, nahiago dut ketua. Gerora jateko, ketu gabea. Edozelan ere, biak gustatzen zaizkit.

Urtean zenbat gazta egiten dituzue?

Sei mila inguru. Hirurehun ardi ditugu eta 45.000 litro esne inguru jaisten ditugu. Gehienak gaztarako erabiltzen ditugu. Bost bat mila kilo gazta egiteko adina esne erabiltzen dugu. Gazta bakoitzeko sei bat litro behar izaten dira, baina ez da beti berdina izaten. Kanpaina hasten den garaian esne gehiago baina meheagoa daukate ardiak. Koipe eta proteina gutxiago eta ur gehiago izaten dute sasoi horretan eta, horregatik, esne gehiago behar izaten da gazta egiteko. Kanpainaren bukatu aldera, berriz, ardiak esne gutxiago ematen dute, baina lodiagoa izaten da.

Gaztazalea izango zara. Zenbatean behin jaten duzu?

Egunean behin, behintzat, askotan; ardiak jaitsi aurretik, arratsaldeko 18:00ak aldera, zatitxo bat. Jeneralean baserriko ogiarekin eta Errioxako ardoarekin lagunduta. Sagardoarekin ere gustura hartzen dut. Bestalde, gazta onarekin alferrik dago irasagarria. Errioxako ardo berezi bati ura edo gaseosa botatzea modukoa da. Gaztak bere gustua behar du, ez irasagarrik. Hori bai, behi esnearekin egindakoa bada...

Jainkoen gutizia da gazta?

Bueno, hori Frantziako gazta baten marka komertziala besterik ez da. Horrek ez dio gustua aldatzen gaztari, saltzeko modu bat baino ez da. Gauzarik txarrena ere sal daiteke, saltzen jakinez gero. Euskaldunok horretan egiten dugu huts. Egiten badakigu, baina saltzeko ez gara oso iaioak. Hemen, eskolan, saiatzan gara marketing irakasle onak ekartzen. Garrantzitsua da, askotan artzainek irabazi beharrean tartekoek irabazten dute.

Geroago eta artzain gutxiago dago?

Ez nuke hori esango. Orain dela 15 urte, Gipuzkoan 85.000 ardi zeuden eta gaur egun 160.000 daude. Artzaintzatik bizi garenak, beharbada, gutxiago izan gintezke, baina ez askoz ere gutxiago. Administrazioak eta sindikatuek lan bikaina egin dute azken urteotan. Lehenengo Nekazaritza sailburua izan zen Joxe Manuel Goikoetxeak egindako lana azpimarratuko nuke. Hori esanda, onartu beharra dago artzainaren lana oso gogorra dela; bokazioa behar da artzain izateko eta ordu txikietan artegian lanean jarduteko. Negua, batez ere, oso gogorra da, baina badira sasoi hobeak edo lan gutxiagokoak ere. Etorkizuna ikusten diot lanbide honi. Hirurehun ardi badi-tuzu eta horiei 45.000 litro esne kentzen badizkiezu, familia aurrera ateratzeko adina ematen du. Baina horretarako gauzak ondo egin behar dira: ardiak arrazaz ontzan saiatu, ondo elikatu, hau da, kome-ni zaiona eman bakarrik...

Elgetako lau t'erdiko finala

23 urtetik azpikoen mailan Leiza eta Agesta aurrez aurre domekan

Iñigo Leiza lemoarrak eta Ander Agesta arantzarrak jokatu dute domeka eguerdian Elgetako lau t'erdiko finala, 23 urtetik azpikoen kategorian. Aurretik, kadete mailako finalean, Mikel Garcia mallabiarra eta Oñatz Gonzalez andoaindarrak izango dira aurrez aurre. Domekako pilota jaialdia eguerdiko 12etan hasiko da eta ETBk zuzenean eskainiko du.

Finalerdiak joan zen egubakoitzean, hilaren 22an, jokatu ziren. 23 urtetik azpikoetan, Ander Agestak 22-6ko emaitzarekin irabazi zion Xabier Ubera elgetarrari. Ubera genuen Debagoieneko ordezkari bakarra finalerdietan baina elgetarrak nerbioak etsai izan zituen eta ezin izan zuen bere maila erakutsi. Agestak, aurretik, Julen Castellanos iazko txapelketa kanporatu zuen finalaurrendietan. Beste finalerdian, berriz, Iñigo Leizak 22-16ko emaitzarekin nagusitu zitzaion Oñatz Bengoetxeari. Partidu gogorra izan zen baina azken tantuetan batak zein besteak huts gehiegi egin zituzten.

Kadeteen mailan, bestalde, Oñatz Gonzalezek 22-7 irabazi zion Urrizelkiri eta Garciak Txu-

rrika mendean hartu zuen, 22-20.

Aurtengoa Elgetako txapelketaren 26. ekitaldia da. Azken urteotan partaidetzak nabarmen egin du gora: aurten, guztira, 300 pilotari inguru izan dira lehian, 197 pilotari 23 urtetik azpikoen kategorian eta 102 kadete mailan.

Txapelketak 2,3 milioi pezetako aurrekontua izan du. Datorren urteari begira, antolatzaileek partaidetza murriztea nahi dute eta baliteke kategorია bakoitzean 24 pilotarik parte hartzea. Ozkarbi elkarte antolatzaileak pilotari onenak gonbidatuko lituzke.



Xabier Uberak (ezkerrean) Agestaren aurka galdu zuen finalerdietan.

GOIBEKOKALE



EDU MENDIBIL

Mikel eta Casado garaile Bergara Hirian

Mikel-Casado bikoteak irabazi zuen Bergara Hiria pilota txapelketa, finalean Larraia eta Navarrori 22-18ko emaitzarekin irabazi ondoren. Senior mailako finala oso parekatua izan zen. Larraiak eta Navarrok 3 tantuko aldea izan zuten bere alde (14-11) baina gasteiztarrek ez zuten etsi eta buelta eman zioten partiduari. Lau pilotariak partidu ikusgarria jokatu zuten eta Mikelek pilotari onenaren saria jaso zuen. Mikelek bi aldiz jarraian irabazi du Bergara Hiria, iaz ere txapelketa eskuratu baitzuen Albizurirekin batera. Promes mailako finalean, Zabalak eta Oteizak 22-15 irabazi zieten Errea eta Jauregiri. Xabier Oteiza izan genuen txapelketako jokalaririk onena.

Chamorrok irabazi zuen Gipuzkoako Itzulia

Bergaran jokatu azken etapan Iñigo Lariz elgoibartarra izan zen garaile

Jesus Manuel Chamorro Muebles Ordizia taldeko txirrindulari legazpiarrak irabazi zuen egubakoitzean astelehenera bitartean jokatu gazte mailako Gipuzkoako Itzulia. Laugarren eta azken etapa Bergaran jokatu zen astelehenean eta Iñigo Lariz elgoibartarrak (Ciclos Iturriaga) eskuratu zuen garaipena. Beroa izan zen etapako protagonista nagusia eta txirrindulariek asko sufritu zuten ibilbide osoan zehar (92 km.). Irteeran Iban Iriondo (Swiss-Flex) genuen lidera baina etaparen azken kilometroetan, Asentzioko gainean hain zuzen, ezin izan zuen aurrekoen erritmoari eutsi eta helmugan minutu bat eta 25 segundu galdu zituen. Iñigo Larizek, Jesus Manuel Chamorro eta Alberto Merinok (Sabico) ihes eginda zegoen Iker Leonet (Bruesa) harrapatu zuten eta lauren artean erabaki zen etapa irabazlea. Azkenean Iñigo Lariz izan zen azkarrena Ibagaraiko helmugan. Chamorro azken kilometroaren barruan erori zen baina epaileek irabazlearen denbora bera eman zioten.



Jesus Manuel Chamorro, Iñigo Lariz eta Alberto Merino sailkapeneko lehen hirurak izan ziren. Argazkian, podiumean.

EDU MENDIBIL

Debagoieneko ordezkari dagokienez, Raul Blazquez arrasatearra (Fagor) 15.a izan zen sailkapen orokorrean, liderra-

rengandik 2 minutu eta 53 segundura, Zigor Medina bergararra (Lokatza Sumofic) 18.a izan zen, Iñaki Juldain arrasatearra

(Ulma) 20.a, Aitor Frutos eskorriatza (Fagor) 21.a eta Aritz Irastorza oñatiarra (Ulma) 26. postuan sailkatu zen.

Kirolabur

PILOTA/ARETXABALETAKO

Aretxabaletako pilotariak Azkoitikoaren aurka jokatu dute gaur, egubakoitzean, Herri Arteko Txapelketaren final erditako itzulera, Azkoitiko pilotalekuan, 22:00etan. Joaneko partiduan atxabaltarrak 2-1 nagusi zitzaizen azkoitiarrei. Pilota partiduak ikustera joateko autobusa aterako da 21:00etan Aretxabaletatik, Azbeko geltokitik.

KROSA/OÑATI

Domekan, uztaillak 1, Torreatzoko herri krosaren IV. ekitaldia jokatu da Oñatin. 11:00etan. Partaideek 7,6 km.ko ibilbidea bete beharko dute. Orduerdi lehenago kadete, infantil eta alebin mailako lasterketa jokatu da (2.000 m.). Iaz Kamel Ziani eta Nieves Zarza izan ziren irabazleak nagusietan.

TRIATLOIA/DEBAGOIENA

Jon Aperribai Debagoieneko lehena izan zen domekan Donostian jokatu triatloian. Arrasateko taldeko triatleta 12. postuan sailkatu zen, 2 ordu, 6 minutu eta 6 segunduko denborekin. Craig Watson irabazle arengandik 10 minutu eta 18 segundutara helmugaratu zen.

JAIAK Arrasate

GEHIGARRI BEREZIA • 2001eko ekainaren 29a

SAN JUANAK 2001



ANDER GILLENEA



- ◆ Koadrilen batzordeak fin bete du jaiak girotzeko ahalegina.
- ◆ Eguzki Laruk ume eta guraso ugari bildu zuen Zaldibarko gunean.
- ◆ Entzierroan oso gutxik lasterka egin badu ere, zezen-plaza egunero bete da.



Urteko jairik ospetsuenetariakoak igaro dira: San Juanak. Uda hastear dago. Festaren lilura gaez eta egunez. Danborrada, dantzaldiak, ..., jo ta ke lehertu arte. San Juanetan, JMA ere jai giroan izan da.

Guztiekin. Betiko moduan.

JMA
ALEJANDRO ALTUNA, S.A.

Gorabeherak parte hartzean

Joan dira aurtengo San Juanak eta oraindik nabari daiteke zerbait herrian. Ez dira jaiak aurreko urteetatik asko aldatu. Jaietan ibili den jende kopurua iazkoaren antzekoa izan da eta parte hartzea ez da askorik hazi; asteburuan jende dezente ibili da kalean, baina astelehen eta martitzenean, ordea, gutxi samar, nagusiki egunez izan bazen ere. Eskerrak herriko koadrilei, euren antolatutako ekintzekin zein besteetan parte hartuz, jai egunei (ez bakarrik) bizitasun handia eman baitiete. Bestalde, egitarauko ekitaldi nagusiek, klasikoenek, parte hartze polita izan dute: Errementari dantzak, danborradak, Arrasate Musikalen kontzertuak eta dragoi janak, batez ere, baina baita goizeko entzierroek ere. Zezen-plaza bete egin da egunero. Horra hor, bestalde, zapatuan plazaraino Makala eramateko aurten bildutako gazte mordo, edota Son Caliente eta Mikel Urdangarinen emanaldiak. Bestalde, istiluak egongo zirenaren zorigaitzoko zurrumurrua ez da zorionez osorik bete. Martitzen goizaldean Ertzaintzara deitu zuten, norbait Ferrerías eta Erdiko Kalen erakusleihu batzuk apurtzen zebilelako, eta 05:00ak aldera, Ertzaintza txosnagunean eta taberna baten sartu ei zen. Istiluak izan ei ziren, baina ez larriak.



Zzzzzzzzz, boom! Hasi dira jaiak!

ANDER GILLENEA



Makala altxatu eta ausartenak ia goraino.

ANDER GILLENEA



Salbe Nagusia, jaietako ohiko erritoetako bat.

ANDER GILLENEA



Umeek harretaz segitu zituzten Takolo, Pirritx eta Porrotxen kontuak.

ANDER GILLENEA



San Juan sua, dantzari eta erraldoi eta guzti, beti bezala, ikusgarria.

ANDER GILLENEA



Berango
ALTZARIAK

LOGOS
ALTZARI INTEGRALAK

AENOR
R
Enpresa Registrada
ER - 0526/298

amc
Bazkide

ERAKUSKETA

Legarre pabilioia
Gipuzkoa etorbidea, z/g

ARRASATE

Tel. 943 79 01 92



...pribilegiatua, jaiak gertutik jarraitzeko.

ANDER GILLENIA



Txosnaguneko rock emanaldiak ere ederrak.

ANDER GILLENIA



Xakelariak Jokin Zaitegi plazan bildu ziren.

ANDER GILLENIA



...Miliariek alaitu zuten triki poteoa...

ANDER GILLENIA




...eta koadrilak jira eta bira ibili ziren, kalean zehar.

ANDER GILLENIA



Danbor hotsak nagusitu ziren zapatu gauean.

ANDER GILLENIA



ZUTARRI S.L.

Eraikuntza enpresa

10 urte zuekin lanean
kalitate eta konfiantza osoz.

Deitu konpromisorik gabe:

Juan M^º Osinaga 696 778 690

Saul Osinaga 649 867 305

Zerkaosteta, 17 · 20500 ARRASATE



Herriko dantzari eta musika taldeek Errementari dantza ikusgarria eskaini zuten.

ANDER GILLENEA



Eguzki Laru, San Juanetako protagonisitetako bat.



Herriko zaharrenei omenaldia egin zieten Abaroan.

GOIENKARIA



Gaztetxekeoen herri bazkarian giro polita izan zen.

GOIENKARIA



Arrasate Musikaleko bandaren kontzertua Monterronen.

GOIENKARIA

Zer moduz San Juan jaietan?



ANNA MACMILLEN
Langilea

Izugarri gustatu zaizkit jaiak. Kaleko eta gaueko giroa gozatu ditut gehienbat, eta berandura arte kalean ibiltzeko aukera. Bestelako ekitaldiak ere gustuko izan ditut: txalaparta, adibidez.



ESTHER ETXEBARRIA
Etxekoandrea

Ondo ibili naiz jaietan. Aurreko urteetan baino jende gehiago zebilen, eta giro polita zegoen. Umearekin, erraldoi eta kilikien kalejiran ibili nintzen, eta asko gustatu zitzaizdan.



FELIX ELORTONDO
Langilea

Gauetz ez naiz apenas ibili; egunez, umeekin. Baina umeen ekitaldiak ere ez ditut ikusi. Egia esan, ez dut ekitaldi bat bera ere ikusi. Hori bai, iaz baino jende gehiago zebilela konturatu naiz.



HELEN COOPER
Langilea

Oso-oso ondo ibili naiz. Guztia gustatu zait; ez nuke jakingo ekitaldi bakar bat azpimarratzen. Akaso, dragoi jana iruditu zitzaizdan jaietako onena. Su artifizialak ere itzelak iruditu zaizkit.



IBAN ERRARTE
Langilea

Parrandan ibiltzeko, ondo; baina ekitaldietan parte hartzeko, jaiak ez zaizkit hain aproposak iruditu. Hori bai, koadrilen lana txalogarria izan da. Ea jendea eurekin parte hartzera animatzen den.



JABIER IRIBECAMPOS
Langilea

Oso ondo pasatu dut. Koadrilararekin ibili naiz, eta dragoi janean ere parte hartu dut. Umearekin, Eguzki Laru ikustera ere joan nintzen. Ekitaldirik politena, Errementari dantza izan da.



MARK CROSSAL
Langilea

Gaueko giroa izan da, niretako, jaietako onena. Dragoi janean ere oso ondo pasatu nuen. Bestalde, Sotillo Caliente talde kuba-rraren Monterronen egin zuen emanaldia da gustukoena izan dudana.



Diseinua ...
Tratamenduak ...
Koloreak ...
Joera berriak ...

Maatz
ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka, 3 (Musakola) · ARRASATE

☎ 943 79 58 78

ORDUTEGI BERRIA

Astelehenetan: 13:30 - 20:00

Asteartetik ostiralera: 9:30 - 12:30 eta 13:30 - 20:00

Larunbatetan: 8:00 - 13:30



Zutikako solariuma

Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko ekainaren 29a

Kultura
eta
Aisialdia



Ekainaren 29tik
uztailaren 6ra

Biblioporrak Irakurri eta gozatu

Biblioporrak deitzen da Debagoieneko 5 liburutegik antolatzen duten kanpaina. Zaleendako zein zaletzeko da kanpaina. Aukera zabala da eta oso interesgarriak dira proposatu-

tako liburuak. Harkaitz Canoren *Plano gainean gosaltzen* edo Susak argitaratu dituen Koldo Izagirrek atondutako *Poesia kalerak*. Gazteentzako 'Nogueira doktoarearen labo-

rategia'..., eta baita etxeko txikienendako liburuak ere. Uda gozatzeko asmoz denetik denentzako. /16

IBAN ARANTZABAL



Liburutegiak

Proposamena: biblioporrak

Zaleentzako zein zaletzeko liburuak

KALITATEA, BERRITASUNA ETA AUKERA ZABALA DIRA LIBURUZAINEN BIBLIOPORRAK KANPAINAN ESKAINTZEN DIGUTENA

Azkenengo 5 urteetan-edo dihardute irakurzaletasuna handitzeko gurariarekin. Debagoieneko 5 udalek hartzen dute parte kanpainan: Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Bergara eta Oñatik. Horrela, askoz aberatsagoa izaten ei da aukeraketa, izan ere aukeratutako liburu guztiak irakurtzen dituzte liburutegiako arduradunek eta ustez onenak direnak proposatu.

Herri guztiak dira ezberdinak eta bazkide mota ere ez da berdina. Horrela denetik sartzen saiatzen dira teknikoak. Udaran irakurtzeko liburuak dira eta adinka sailkatuta aurkezten dituzte. Biografia bat, klasiko bat, poesia libururen bat, nobelak... sartzen dituzte. Denetik egoten da eta hizkuntzari dagokionez ere euskaraz eta erdaraz proposatzen dituzte liburuak. Helburua udaran ere irakurtzen jarraitzea da, liburutegiak ikasteko baino, irakurtzeko direla erakutsi gura dute, eta etsaminak amaitu ostean ere liburutegian hainbat liburu daudela edonoren eskura. Abuztuan jende gutxi geratzen da bailaran, baina astia ere izaten da eta tarte horiek osatzeko liburu bat lagun ona izan daiteke.

Biblioporrak herri guztiarendako liburu aukerak dira. Beharbada, oso irakurle denjendeak ez du gida hauen beharrik izango eta hori kontuan hartzen dute, izan ere, bestelako kritikak eta abar irakurtzen dituzte oso zale direnek, eta biblio-



Uda irakurketarako sasoi ona izaten da.

ENEKO AZKARATE

porrak-en zerrenda askoz zabala goa da. Jendea animatzeko da gida, gurasoak umeei zer erosi jakiteko, irakurzaletasuna sortzeko eta sortua dutenei arra piztuta mantentzeko.

Hamabostean behin elkartzen dira literatura mintegian bost liburutegietakoak, eta harreman horrek

ere izango du eragina egindako aukeraketan.

Inork udan zer irakurri ez badu, irakurle izan edo ez, badu ondoko zerrendan aukera majo askoa. Liburuzainen proposamena, irakurketa.

IBAN ARANTZABAL

Arantzazu Ibarondo/Oñatiko Udal liburutegikoa

Seguran jardun zuten Euskal Herriko dantza sueltoko bikoterik onenek Euskal Herriko dantza suelto txapelketako 25. jardunaldian. Onak denak, baina onenak, beharbada freskotasuna eta teknika erakutsi zutelako, Asier Ena eta Maite Lazkano izan ziren, bergararrak biak ere.

Nola egiten duzue aukeraketa?

Aukeraketarako berritasunak proposatzen ditugu, aurten, esaterako, 2000 eta 2001ekoak daude. Aldizkari espezialduetan kritikak irakurri, interneten nabigatu, liburu dendetan begiratu... Ondoren liburuok erosi eta arduradunon artean banatzen ditugu irakurtzeko. Hortik ateratzen dira onenak: kalitatea, berritasuna eta aukera zabala eskaintzea hartzen dute kontuan.



Nolakoa da Debagoieneko irakurlea? Zein irakurketa aukeratzen du?

Bailaran denetik egongo da. Perfila askotarikoa da, baina Oñatin, esaterako, %90 emakumeak dira, behintzat helduen

arteak. Euskaraz zein gaztelaniaz irakurtzen da, baina ehuneko handiena gaztelaniaz irakurtzen dela esan genezake, batez ere helduen artean. Oso heldu gutxi daude euskaraz irakurtzen dutenak. Euskal irakurleak gazteenak dira, eta horien artean ere gaztelaniak pisu handia du.

Nobelak aukeratzen dira gehien. poesia oso gutxi irakurtzen da, eta erdarazkoetan salduenak eta autore ezagunak dira irakurrienak.

Zein adinetan irakurtzen da gehien?

40 urtetik gora euskaraz ia inork ez du irakurtzen eta euskaldunak beherako multzoan daude. 12-13 urtera arte oso zaleak dira, 14-18 irakurketa ohitura galtzen da salbuespenak badaude ere, eta 18 urtetik 55era badaude irakurleak. Helduagoak ere badira baina gutxi. /I.A.

Helduak

- **Cano, H.** *Piano gainean gosaltzen*, Erein.
- **Chatwin, B.** *Los trazos de la canción*, Península.
- **Chevalier, T.** *La joven de la perla*, Alfaguara.
- **Cook, T.H.** *El misterio de la laguna negra*, Umbriel.
- **Dickens, C.** *Casa desolada*, Montesinos.
- **Etxaniz, X.** *Gure ipuinak*, Pamiela.
- **Etxeberria, X.** *Egun denak ez dira berdin*, Elkarlanean.
- **Frisch, M.** *Hommel faber*, Elkarlanean.
- **Houellebecq, M.** *El mundo como supermercado*, Anagrama.
- **Loriga, R.** *Trífero*, Destino.
- **Macleod, A.** *Sangre de mi sangre*, RBA.
- **Mintegi, L.** *Sisifo maite minez*, Txalaparta.
- **Monzo, Q.** *Ochenta y seis cuentos*, Anagrama.
- **Saizarbitoria, R.** *Gorde nazazu lurpean*, Erein.
- **Sijie, D.** *Balzac y la joven costurera china*, Salamandra.
- **Thomas, B.** *Lucio: el anarquista irreductible*, Ediciones B.
- **Hainbaten artean.** *XX. mendeko poesia kaierak*, Susa.

Gazteak

- **Fernandez Paz, A.** *Nogueira doktoarearen laborategia*, Elkarlanean.
- **Gartzia, J.** *Tunelaz bestaldean*, SM.
- **Gudule, J.** *Bizitza atzeraka*, Elkarlanean.
- **Mankell, H.** *El perro que corría hacia una estrella*, Siruela.
- **Marín, P.A.** *Bizitzaren gésala*, Elkarlanean.
- **Pullman, P.** *La maldición del rubí*, Montena/Mondadori.
- **Santos, C.** *La ruta del huracán*, Alba.
- **Westphalen, J.V.** *Los imposibles: guía para educar a tus padres*, Ediciones B.
- **Wilde, O.** *Printze zoriontsua*, Elkarlanean.

0 urtetik aurrera

- **Carballeira, P.** *Matteo*, Kalandraka.
- **Cuentos de colores para jugar, soñar y aprender, Santillana.**
- **Douzou, O.** *Lobo*, Fondo de Cultura Económica.
- **Etxaniz, X.** *Muxu lapurrak*, Aizkorri.
- **Le Saux, A.** *Pequeño museo*, Corimbo.
- **Pausoka bilduma, Tarttalo.**
- **Tullet, H.** *El día y la noche*, Destino.
- **Zazpi antxumeak, Kalandraka.**

6 urtetik aurrera

- **Añorga P.** *Bide magikoa*, Aizkorri.
- **Castro, G.** *Sirenak nola jaio ziren*, Edebé-Giltza.
- **Larrondo, V.** *Mamá fue pequeña antes de ser mayor*, Kokinos.
- **Orlev, U.** *Quiero ser grande*, SM.
- **Piedras preciosas colección, Montena.**
- **Trostan bilduma, Tarttalo.**
- **Zubizarreta, P.** *Magalik badaki*, Anaya.

8 urtetik aurrera

- **Cillero, J.** *Kofi itsasora bidean*, Aizkorri.
- **Juaristi, F.** *Adina eta aduanak*, Erein.
- **Landa, M.** *Sorgina eta maixua*, Elkarlanean.
- **Pilkey, D.** *El capitán Calzoncillos y el ataque de los retretes parlantes*, SM.
- **Silverstein.** *Donde el camino se corta: nuevos poemas para reirse*, Ediciones B.
- **Torras, M.** *Nire arreba Aixa*, Elkarlanean.
- **Txiliku.** *Axa, Mixa zilarra: euskaraz jolas egiteko liburua*, Elkarlanean.
- **Vaugelade, A.** *De cómo Fabián acabo con la guerra*, Corimbo.

10 urtetik aurrera

- **Crummerner, L.R.** *El comisario Castilla, siempre a toda pastilla*, Espasa.
- **Díaz, G.** *Oyeme con los ojos*, Anaya.
- **Doyle, R.** *La venganza de las risitas*, RBA.
- **Linazisoro, K.** *Bota gorriak*, Anaya-Haritz.
- **Saint-Exupéry, A.** *Printze Txikia*, Elkarlanean.
- **Sarrionandia, J.** *Izeba Mariasunen ipuinak*, Elkarlanean.
- **Skarmeta, A.** *La composición*, SM.
- **Strong, J.** *Amonak ihes egin du*, Elkarlanean.

Jaiak herriz herri

ESKORIATZA San Pedroak

Egubakoitza 29

- 09:00 Herriko txistulariekin kalejira.
- 11:40 Elizbira (Parrokia, Jose Arana, Plaza, San Juan kalea, Parrokia).
- 12:55 Txistulariekin Udal Korporazioa San Pedro parrokiara joango da.
- 12:00 Meza Nagusia San Pedro elizan.
- 13:15 Musika Eskolako Bandaren kontzertua herriko plazan.
- 18:30 "Kupeletan Erronka" Gorosarri plazan. Trikiti, bertso eta dantza aldi berean uztartzen dituen ikuskizuna.
- 20:00 Escala 2000 orkestrarekin dantzaldia herriko plazan.
- 22:30 Pilota partiduak frontoian. Zabala eta Auxkin, Xala eta Inurrategi. Titin eta Goñi III, Etxaniz eta Lasa.
- 23:00 Escala 2000 orkestrarekin dantzaldia herriko plazan.
- 00:30 Zezen suzkoa plazan.

Zapatua 30

- 11:00 Pilota partiduak.
- 12:00 Herriko hildakoen aldeko meza.
- 12:30 Haurrentzako ikuskizuna Hotzmuga taldearekin, herriko plazan.
- 13:30 Trikitilariak.
- 16:30 X Mus Txapelketa Gernika plazan. Izen ematea Urrestilla tabernan.
- 17:30 "Bike Trial Show" trialsina.
- 19:30 Haurren danborrada.
- 22:30 "Ekaitzaren Garrasia" ikuskizuna Gorosarri plazan.
- 23:30 Dantzaldia "Kiñu" taldearekin herriko plazan.
- 00:30 Zezen suzkoa.

Domeka 1

- 09:00 Herriko txistulariekin kalejira.
- 12:45 Kriskitin dantza taldearen eskuetik "Alardea" edo "Errebonbiloak" Herriko plazan.
- 13:15 "Liñu dantzaren estampa" Gorosarri plazan.
- 14:30 Herri bazkaria plazan.
- 18:00 Patxaranga txarangari ongietorria eta poteoa.
- 20:00 Euskal preso eta errefuxiatuen aldeko kalejira txarangaren laguntzaz.
- 23:30 Dantzaldia Urgabe taldearekin.
- 24:00 "Iribarko Ingurutxo" denok dantzatzeko, herriko plazan.
- 24:10 Jai bukaerako traka eta bandera jaitziera.
- 24:30 Dantzaldia Urgabe taldearekin.
- Egun osoan haurrentzako parkea egongo da Intxaurtxueta plazan.

Zapatua 7

- 15:00 San Pedro jaietako V. autokrossa Ederlan parean.

ELGETA Ferixa nagusia

Egubakoitza 29

- 10:00 Etxafleroak eta kanpai hotsa.
- 11:30 Marcel magoa plazan.
- 12:00 Meza Nafarroako La Ribera kanta joteroekin.

- 13:00 Nafarroako La Ribera canta joteroen erakustaldia plazan.
- 14:00 Jubilatuentzako bazkaria.
- 16:30 Umeentzako berbena: Goloka taldearen "Tximino sound" ikuskizuna.
- 19:00 Zezenak eta pottokak.
- 20:00 Bolo txapelketa jubilatuentzako.
- 20:00 Kantu poteoa.
- 22:30 "Allo Europa" antzerkia Markeliñe taldearekin Kiroldegian.
- 00:30 Erromeria Egan taldearekin.
- 00:00 Kontzertua Gaztetxe ondoan: MCD eta Nuevo Catecismo Católico.
- 20:30 B Vocal taldearen emanaldia (Zaragozakoak).
- 20:30 Kontzertua Gaztetxean: Deabruak teilatuetan eta Bide Ertzean.
- 21:30 Sardina-jan herrikoia.
- 22:00 Imuntzo eta Belokirekin erromeria.

ARAMAIO San Martinak

Egubakoitza 29

- 18:55 Jaien hasiera.
- 19:00 Pregoia. Aramaioko bertsolariak herriko plazan.
- 19:30 Kartel eta balkoi lehiaketetako sari banaketa plazan.
- 19:30 "Txikiglub" kalejira Detraka taldearekin. Bestalde, iluntzera arte Indarra fanfarrea kaleak alaituz.
- 22:30 San Martin Pilota Txapelketako finalurrekoak.
- 00:00 Urgaberekin dantzaldia plazan.

Zapatua 30

- 12:00 Euskaraokea plazan.
- 12:30 Tortilla lehiaketa txozna inguruan.
- 14:00 Tortillak probatzeko aukera.
- Eguerdian, herriko trikitilariak kalez kale.
- 16:00 Herri Olinpiadak plazan.
- 18:00 Motozerra Erakustaldia. Berastegitik etorritako hirukoteak egurrezko irudiak landuko ditu.
- 19:30 Llagta-em ekuatoriar taldearen musika emanaldia plazan.
- 00:30 Astondoa pirotekniaren suziriak.
- 00:45 Erromeria Joselu Anaiekin.

Domeka 1

- 10:00 Txistularien Kalejira.
- 11:00 Aramaioko Lagun-Artea eta Legutioko Laguntza taldeen kalejira erraldoiek lagunduta.
- 12:00 Meza Santua San Martin zaindariaren omenez.
- 13:00 Euskal dantzak herriko plazan.
- Eguerdian Ezberdinak gaiteroak.

- 14:30 Herri bazkaria.
- 16:00 Haur parkea 20:00ak arte: puzgarriak, rokodromoa, motor pista...
- 16:30 Plater Tiraketa (16:00etan full-a eta 17:30etan tiraketa)
- 18:30 Kilkir txaranga.
- 19:00 Bertsolariak txosnetan: Andoni Egaña, Mañu, Arkaitz Estiballes, Iñaki Gurrutxaga eta Unai Agirre. Gai jartzai-leak Manex eta Andere.
- 23:00 Sorbeltz taldea.

Astelehena 2

- 12:00 Meza herriko hildakoen alde.
- 13:00 Umeentzako berbena makineroa plazan Detraka taldearekin.
- 16:00 Bits-jaiak plazan.
- 18:00 Arrasate Musikalen emanaldia San Martin elizan.
- 18:30 Takolo, Pirritx eta Porrotx.
- 20:30 Kilkir Txarangarekin Mozorro desfilea eta poteoa.
- 21:30 Herri afaria.
- 23:30 Dantzaldia: Irailerako 6.

BERGARA San Pedro eta San Martzial

Egubakoitza 29

- 11:00 San Pedro eguneko Meza nagusia, Udal Korporazioarekin, Udal Txistulari Bandak lagunduta, San Pedro parrokiaren.
- 20:00 Bergarako Orkestra Sinfonikoaren Kontzertua San Pedro parrokiaren.

Zapatua 30

- 07:30 Santa Marinatik San Martzialera igoera, letania errezatuz. Ondoren, meza San Martzialen. Bukaeran txokolatea.
- 12:00 Jubilatuen bazkaria San Martzialen.
- 19:00 Bonba japoniarrak, San Martin plazan. Ondoren, buruhandi eta erraldioen kalejira Udal Txistulari Bandak eta Kobok dultzainero taldeak lagunduta.
- 22:30 Arantza & Panchorekin Hego Amerikako musika emanaldia (rantxerak, korridoak...) Fraiskozuri plazan.

Domeka 1

- 09:30 Alborada Eretxo taldeko dultzaineroekin, Zumarragako trikitilariarekin, Los Incansables txarangarekin eta Udal Txistulari Bandarekin.
- 10:00 San Martzialera galdi igoera.
- 11:00 San Martzialen Meza nagusia.
- 12:00 Xamatx taldearen dantza emanaldia. Ondoren, Ohiko aureskua. Jarraian, Narbaiza eta Egileorrek ber-tso saioa. Ondoren, gustuko duten guztiek kantatutako abesti herrikoiak, Kantinan.
- 16:00 Haur jokoak.
- 18:00 Herri jolasak: sokatira eta txingak.
- 18:00 Aranzabal Orkestrak alaitutako erromeria.
- 21:00 Jaitzierako txupinazoa. Txistulariak, dultzaineroak, trikitilariak eta txarangak alaitutako jaitziera.



Jaiak nahi izanez gero, baduzue non aukeratu, oraingo asteburuan ez dago eskusarik, jaiak nahi: Aramalon, Elgetan, Eskoriatzan... Azken honetan San Pedroak ospatuko dituzte eta izango da zerekin gozatu. Zapatu arratsalderako, esaterako, haurren danborrada iragarri dute. Horrez gain, dantzaldiak, pilota partiduak, haurrentzako ikuskizunak... denetik.

Ekaina: 29-6

Edu Mendibil | Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

Dantza

ARAMAIO

> **Sutargi** ikuskizuna zapatuan, ekainak 30, kultura etxean, 22:30ean.

Musika

ARRASATE

> **Arrasate Musikalek** antolatuta-ko jaialdia egubakoitzean, hilak 29, Monterronen, 19:30ean. Herriko hainbat musika taldek eta dantza taldek esku hartuko dute.

BERGARA

> **Bergarako Orkestra Sinfonikoaren** emanaldia egubakoitzean, hilak 29, San Pedro parrokian, 20:00etan.

ELGETA

> **MCD eta Nuevo Catecismo Catolico** egubakoitzean, hilak 29, gaztetxean, gauerdian.
> **Buitraker, TTak eta Ki Sap** zapatuan, ekainak 30, gaztetxean, gauerdian.
> **Bide ertzean eta Deabruak Tellatueta** domekan, uztailak 1, gaztetxean, 20:30ean.

ESKORIATZA

> **Heriotza, Klineks eta Emboscada** egubakoitzean, hilak 29, txosnagunean, 23:00etan.

GASTEIZ

> **Trance Central** jaialdia zapatuan, ekainak 30, Fernando Buesa pabilioian, 22:00etan.
> **Judas Priest eta Savatage** taldeak eguztenez, uztailak 4, Fernando Buesa Arena pabilioian, 21:00etan.

Erakusketak

ARAMAIO

> **Arabako Euskal Hotsak** erakusketa Sastiñan uztailaren 8a arte.

Zapatuetan eta domeketan 12:30etik 14:30era eta 18:00etik 20:30era. Aste barruan 18:00etatik 20:30era.

ARRASATE

> **Manolo Quevedoren** margo erakusketa Iturriotz kaleko Harresi aretoan domeka arte. Astebukaeran 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.
> **Jon Balentziagaren** margo erakusketa Aita Menni ospitalean uztailaren 2a arte.
> **Koldo Gojenolaren** margo erakusketa Toki-Eder kafetegian.

BERGARA

> **Mari Karmen Laskurainen** margo erakusketa kultura etxean uztailaren 8a arte.
> **Nere Atorrasagastiren** margolanak oliotan Nahikari tabernan domeka arte.
> **Juan Jose Altuna Akizuren** margo erakusketa La Caixako bulegoan (Fraiskozuri, 7) abuztuaren amaiera arte.

EIBAR

> **Luis Laskurain** bergararraren margolanak Topaleku aretoan domeka arte.

Lehiaketak

ARRASATE

> **Komiki ez sexisten IV. lehiaketa**, Arrasateko Udalak deituta. Lanak aurkezteko epea uztailaren 20an bukatuko da. Testuak euskaraz zein gazteleraz aurkez daitezke. Lehen saria 100.000 pezeta da. Beste hainbat sari banatuko dira. Argibide gehiago Emakume sailaren bulegoan jaso daitezke, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

> **Argazki lehiaketa** deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Zuribeltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

OÑATI

> **San Migel jailetako programaren azala aukeratzeko lehiaketa**. Lehiaketa honetan esku hartzeko oñatiarra izan edo Oñatin bizi beharra dago. Teknika librean izango da. Ezinbestekoa da ondorengo testua agertzea: *Oñatiko Jaixak 2001*. Irabazleak 40.000 pezetako saria jasoko du eta bigarren saria 20.000 pezeta izango da. Lanak aurkezteko epea uztailaren 16a arte izango da zabalik eta Turismo Bulegoan edo kultura etxean utzi beharko dira.

GASTEIZ

> **Gazteen Bideo Amateurraren IX. Erakustaldia**. Filmak (hiru kopia VHS sisteman) aurkezteko epea uztailaren 31n bukatuko da. Lan onenentzat sariak egongo dira. Argibideak 945 28 61 42 telefono zenbakian.

ZALDIBAR

> **Zaldibarko toponimia** jaso eta finkatzeko lehiaketa. Lana egiteko 12 hilabete izango dira eta lehiaketaren zenbatekoa 1.800.000 pezeta izango da. Norbanakoez nahiz horretarako osatutako lantaldeek eskatu ahal izango dute lehiaketan esku hartzea. Lehiaketan esku hartzeko unibertsitate tituluduna izatea beharrezkoa da. Argibide gehiago 94 682 70 16 telefono zenbakian.

Ikastaroak

ARRASATE

> **Gorputz lan bioenergetiko taldea**. Eguazteneko, 18:30ean. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.
> **Udako gazte ikastaroak**, 15 urtetik gorakoei zuzenduta: argazkigintza (zapatuetan, ekainaren 30etik uztailaren 28ra), gaur egungo dantza (uztailaren 2tik 13ra, astebarruan), irratia tailerra (uztailaren 2tik 27ra, astelehen eta eguztenez) eta arkeologia tailerra (uztailaren 9tik 20ra, astebarruan). Izena ematea eta argibideak Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 zenbakian.

ARETXABALETA

> **Garapen pertsonala taldea**. Hilean bi bilduko dira larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara. Informazioa eta argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

DEBAGOIENA

> **Udako Euskal Unibertsitateak** antolatzen dituen udako ikastarotan izena emateko epea zabalik dago. Miarrizteko ikastaroak uztailaren 2tik 6ra bitartean egingo dituzte, eta Iruñekoak 16tik 27ra. Izena ematea eta argibideak 943 82 14 26 telefonoan.

DEBA

> **Debako Arte Eskola**. Udako ikastaroak uztailaren 2tik aurrera: kalkografiako grabatuaren hastapenak, zeramikaren hastapenak, brontze galdaketa artistikoa, marrazketa eta pintura tailerra, marmolezko eskultura edota egurra lantzeko tailerra. Argibideak eta izena ematea 943 19 18 04 zenbakian.

Deiak

ARRASATE

> **Bilbo eta bere emakumeak bidaia kulturala** ekainaren 30ean, Arrasateko Udako Emakume Sailak eta Arrasateko Emakumeen Kontseiluak antolatuta. Bi ekintza eskaini dituzte: Bilbon, hango emakumeen historiaren eskutik paseatzea eta Guggenheim museoa bisitatzea. Irteera ekainaren 30ean izango da, 09:00etan Garibaitik. Izena ematea ekainaren 28a arte zabalik Emakume Sailean (943 79 09 00 edo 943 79 41 39). Langileak 1.000 pezeta, eta langabeak, erretiratuak eta laguntza ekonomikoa jasotzen dutenak, 600 pezeta.

BERGARA

> **Jardun elkarteak** irailetik aurrera Bergaran abian jarriko duen



MUSIKA

BERGARAKO ORKESTRAREN KONTZERTUA

San Pedro Eguna ospatzeko, Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, San Pedro parrokian, arratsaldeko 8etatik aurrera. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, orkestrak honako pieza hauek joko ditu: *Los esclavos felices* (Obertura, J.C. Arriaga konpositorearena), *Zazpigarren sinfonia* (Allegretto, Ludwig Van Beethoven), *Bederatzigarren sinfonia* (IV. mugimendua, A. Dvorak) eta "The mask of zorro" (soinu-banda, James Horner konpositoreak idatzitakoa).

Non: Bergarako San Pedro parrokian. **Noiz:** Egubakoitza hilak 29. **Ordua:** 20:00etan.

LAIXAN EGUNA

Uztailak 7, larunbata


Unibertsitate aurrean

- Haur jolasak
- Herri bazkaria
- Izotz taldearekin erromeria...

Txartelak salgai 2.000 pta.tan ohiko tabernetan

Egun osoko jai

zeuria, neuria, geuria
Euskeriaren arduria!



Laixan



Bide ertzean eta Deabruak Teilatuetan

Elgetako gaztetxe ondoko lautadan.

Uztailaren 1ean, 20:30ean

Zinema

ARRASATE / ALAI ZINEMA

Algo que contar
Egubakoitza: 19:00, 22:00.

El sastre de Panamá
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelena: 19:00, 21:30.
Martitza: 19:00, 21:30.

BERGARA / NOVEDADES

El viaje de Arián
Egubakoitza: 19:30, 22:30.
Zapatua: 22:30.
Astelena, ikuslearen eguna: 19:30.

Miss Agente Especial
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 19:30, 22:15.

OÑATI / SANTA ANA

Los ríos de color púrpura
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.

EIBAR

UNZAGA

Evolution
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelena: 19:30, 22:15.
Martitza: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

RIALTO

Manolito Gafotas: ¡Mola ser jefe!
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelena: 19:30, 22:15.
Martitza, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA

Prueba de vida
Egubakoitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelena: 22:15.

ELORRIO / ARRIOLA

Cabalgando con el diablo
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelena: 20:00.

AZKOITIA / BAZTARTXO

Krampack
Egubakoitza: 22:00.

Premonición
Zapatua: 22:00.
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelena: 20:00.

GASTEIZ

GURIDI

Evolution
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

El diario de Bridget Jones
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Arachnid
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Abierto hasta el amanecer 3
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

El sastre de Panamá
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Spot
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

El emperador y sus locuras
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

MIKELDI ZINEMAK

El regreso de la momia
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:00.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

Manolito Gafotas: ¡Mola ser jefe!
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:15.
Astebarruan: 17:15.

Arachnid
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:00.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:00.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

El diario de Bridget Jones
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:00.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:00.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

El emperador y sus locuras
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:00.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:00.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Amor, curiosidad, prozak y dudas
Egubakoitza: 20:00, 22:45, 1:00.
Zapatua: 20:30, 22:45, 1:00.
Domeka: 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:30.

School killer
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:00.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:00.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Tomb raider
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:00.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:00.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Rugrats en París
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:00.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:00.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Sin vergüenza
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

MIKELDI ZINEMA

La hora de la araña
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Astebarruan: 17:30, 20:00.

FLORIDA-GURIDI

Blow
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik martitzenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Eguaztena: 17:00, 19:45, 22:30.
Eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

Sin vergüenza
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Manolito Gafotas: ¡Mola ser jefe!
Egubakoitzatik eguenera: 17:30.

Una noche con Sabrina Love
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domeka eta astelena: 17:00, 19:45, 22:30.
Martitza: 17:00, 22:30.
Eguaztena: 22:30.
Eguena: 17:00, 19:45, 22:30.

Sagitario
Egubakoitza eta zapatua: 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 22:30.

Tiempos de azúcar
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 20:00, 22:30.

Asesinato en febrero
Egubakoitzatik eguenera: 17:30, 20:00.

Siempre a tu lado
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Los cachorros de Buddy
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Manolito Gafotas: ¡Mola ser jefe!
Egubakoitzatik eguenera: 12:30.

STER ZINEMAK

Tomb raider
Egunero: 12:25, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 00:50 (gauekoa).

Evolution
Egunero: 12:30, 16:10, 18:25, 20:40, 22:50, 1:05 (gauekoa).

Spot
Egunero: 12:20, 16:25, 18:35, 20:50.

El emperador y sus locuras
Egunero: 12:10, 16:40, 18:40, 20:35.

Siempre a tu lado
Egunero: 23:00, 1:10 (gauekoa).

Arachnid
Egunero: 12:40, 16:20, 18:20, 20:25, 22:30, 00:30 (gauekoa).

Manolito Gafotas: ¡Mola ser jefe!
Egunero: 12:05, 16:30, 18:25.

El diario de Bridget Jones
Egunero: 12:35, 16:15, 18:30, 20:45, 22:55, 1:00 (gauekoa).

Rugrats en París
Egunero: 12:15, 16:35, 18:50, 20:55, 22:40, 00:45 (gauekoa).

Blow
Egunero: 20:20, 22:40, 1:05 (gauekoa).



EL VIAJE DE ARIAN
ZUZENDARIA: EDUARD BOSCH.
AKTOREA: INGRID RUBIO,
ABEL FOLK, SILVIA MUNT,
TXEMA BLASCO.
Eduard Bosch katalanaren lehendabiziko film luzea Euskal Herriaren giro-tuta dago eta Jarrai erakundearen dabilen *Arian* (Ingrid Rubio) gaztearen gaineko gorabeherak kontatzen dizkigu. *Arian* poliki-poliki indarkeriaren esparruan murgilduko da eta bertan *Vivaldi* (Abel Folk) ezagutuko du. *Vivaldi* ere *Arian*en arrazo berberak izan zituen ETAn sartzeko eta orain, *Arian* gaztearekin maiteminduko da.

EL SASTRE DE PANAMA
ZUZENDARIA: JOHN BOORMAN. AKTOREA: PIERCE
BROSNAN, GEOFFREY RUSH,
JAMIE LEE CURTIS.
John Le Carre idazle arrakastatsua nobelaren oinarritutako filma filmatu du John Boorman zuzendari ingelesak (*La selva esmeralda*, *Esperanza y gloria*), kritikaren oniritzia jaso duela. Espia britainiar batek *Harry Pandel* kontratatuko du Panamakoa militarren eta politikarien arteko elkarrekin entzun ditzan. Kontua da *Harry* ez dela britainiarrek uste duten pertsona, eta hark bidaltzen dien informazioa ez dela oso zuzena...

"Koadrillategi" izeneko egitasmorako dinamizatzaileak behar dira. Bete beharreko baldintzak: 20 urtetik gorakoa izatea, euskaraz hitzatea eta irakasle ikasketak, pedagogia, psikologia, soziologia nahiz gizarte hezkuntza ikasten egon edo ikasketak bukatuak izatea. Interesatuok ekainaren 30a baino lehen bidali behar dute curriculum helbide honetara: Jardun elkarte. Juan Irazabal z/g (Martxelena). 20570 Bergara.

LEINTZ GATZAGA
> **Hitzaldia:** *Euskal mitologia*. Hilaria: Toti Martínez de Lezea. Egubakoitzean, hilak 29, kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI
> **Pirinioetara irteera** uztailaren 21ean eta 22an, Aloña Mendik antolatuta. Uztailaren 21ean Cauterets-en izango dira eta uztailaren 22rako bi aukera egongo dira: Petit Vignemale eta Vignemale Handia. Vignemale Handira igotzeko beharrezkoak dira pioleta eta kranpoiak eramatea. Bazkideak: 8.000 pezeta. Sarrerakoak: 9.000. 18 urtetik gorakoak 5.000 pezeta. Izena emateko uztailaren 16a arte zabalik.

> **Hitzaldia:** *Haragiaren kontsumoan kalitatezko garantiak eta bertagariak, kontsumitzaileen kezak*. Hizlariak: Fermin Jauregi (Kalitate fundazioa) eta Juan Ramon Ibarbia (Diputazioaren Kazaritza Departamentua). Egunean, uztailak 5, Oñatiko Kazararen Elkartean, 19:00etan.

> **Laxan eguna** datorren zapa-uan, uztailak 7. Herri bazkarirako kartelak (2.000 pezeta) Aker, Guria, Olakua, Luis, Taberneta, Turismo Bideoan edo Laxan elkartearen bulegoan salgai.

DEBAGOIENA
> **Uda euskaraz 2001.** Gasteizko eguneko euskal tokiak eta jasotako Berbaizun elkartearen aurkeztutako oporrak talde antolatuan egun gura duenari talde euskaldunekin egiteko aukera ematen dute. Aurten bi bidaia antolatuko dituzte, Txekia-Poloniara (abuztuaren 11tik 27ra) eta Britainia-herreetara (uztailaren 31tik abuztuaren 13ra). Argibideak 945 16 19 56 (Jesus) edo 94 447 10 (Josu) telefonoetan.

Jaiak
ANTZUOLA
> **San Martzial jaiak** Lizarragan abuztuaren 30, abuztuaren 11etan txapligu jaurtiketa eta plater tiroketa probak. Herriko 12etan meza eta

jarraian gazta eta ardoa banatuko dituzte, ohiturari jarraituz. 13:00etan herriko trikitilariak eta 16:30ean herri mailako plater tiroketa. Ondoren, 18:00etan umeendako jolasak, 19:00etan txokolate jana, 20:00etan giro alaitzea Epelde, Larrañaga eta Narbaizarekin eta 21:00etan herri afaria.

Afalostean erromeria Epelde, Larrañaga eta Narbaizarekin eta gauerdian zaku-lasterketak. Gauko ordu bietan Epelderekin batera Antzuolako pandero jotzaile berrien estrainekoa. Domekan, uztailak 1, 11:00etan egunsentikoa txistulariekin, 11:30ean txirridulari igoera, 12:30ean meza San Martzialgo ermitan eta gero salda,

nahi duten guztiendako, eta luncha erretiratuendako. Eguerdiko ordu batean herriko txirridulari igoeraren sari banaketa eta jarraian herriko dantzariak. Gero, erromeria herriko trikitilarietara eta 16:00etatik 20:30era erromeria Nikolas Gardokirekin. Gauean, 21:00etan, txapligu jaurtiketa eta jaien amaiera.

Museoa
ESKORIATZA
> **Eskoriatzako museo eskola.** Hidalgo, 5. Euskal Herriko historia, historiaurrea eta etnografia. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak 943 71 54 53 telefono zenbakian.



Umore giroan

Jon Irizar

JATETXE EDER BATEAN

Bazan beti etxian sartuta egoten zan neska zahar bat eta egun baten afaltzera jatetxe eder batera juatia erabaki dau. Jatetxean, etorri jako zerbitzarixa:

- Lehenengo daukazu ensalada mistoa, arrain zopa...

- Horixe, horixe ekarri.

Badator zerbitzarixa arrain zoparekin, behatz potoloa ontzixan sartuta daukala. Emakumia, zeharo haserre..., baina ez dotsa ezer esan.

- Bigarren daukazu solomilloa, legatza saltsan...

- Ekarri legatza.

Badator zerbitzarixa legatzakin eta behatz pololoa,

orainguan be, ontzixan sartuta. Neska, erabat haserretuta, baina ez dotsa ezer esan.

- Eta posterarako daukazu arroz esnea, soufflea...

- Horixe ekarri, mesedez.

Badator zerbitzarixa behatz pololoa souffle artian sartuta daukala.

Eta neska bere onetik aterata:

- Aizu, barkatu esatia baina etorri zaren bakoitzian behatz potoloa jatekoen artean sartuta ekarri dozu.

- Bai, medikuak berotan edukitzeko esan dosta eta.

- Eta zergatik ez dozu ipurzuluan sartzen?

- Oraintxe arte bertan eduki dot eta.

Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola




Zenbat nekazaritza ustiategi, abeltzaintzarekin?

Eustaten arabera, 1999an, Debagoiengan 2.202 nekazaritza ustiategi zeuden. Asmatuko ote zenuke horietatik zenbat ote diren abeltzaintza motaren bat dutenak?


- %18
- %35
- %23

Erantzun zuzena: %35

Soluzioak



Z	U	R	•	A	L	U	A
E	L	E	K	A	I	M	E
M	I	L	A	•	B	A	T
A	•	O	K	•	A	•	D
A	M	A	I	A	K	•	K
•	A	R	R	A	•	•	•
I	K	I	R	E	N	E	•
K	I	Z	E	•	V	I	•
A	R	I	S	T	E	G	I
•	T	E	Z	•	R	R	•
•	I	T	U	N	•	•	•
M	A	I	T	E	•	•	•
•	•	•	•	•	•	•	•



Horoskopoa

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Zenbait talderi eragingo dioten zure asmoak azaldu beharko dituzu. Ahalegindu zorrotzegi ez jokatzeko.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Baikor jokatu duzu harremanetan, eta horrela ekintza eremu berriak sortuko dituzu.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Zaindu zure kanpoko itxura besteen aurrean. Erabaki azkarrik hartu beharko dituzu, zure bizitzan ezustekoak agertuko dira-eta.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Utzi agerian, gizartean, harremanetan eta familian dituzun trebetasunak. Aldaketak etxean.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Bide berriari ekiteko energia emango dizun hausnarketa aldia.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Norabide berrirantz jo beharko duzu, zure bizitzako zenbait arlotan lider modura jokatzeko.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Jendaurreko zure baliabide eta trebetasunak kanporatuko dituzu. Bilatu laguntza berriak dirua inbertitzeko edo aurrezteko.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Jarrera praktikoa hartu beharko duzu harremanetan eta komunikazioan. Ez jokatu ironiaz kontu serioetan.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Zure bizimoduaren berregituratzeak edo norabide aldaketak, oinarri fisiko, kultural eta abarreko guztiak aldaraziko dizkizu. Horrek eragingo dizkizun nahasteak nahaste, saiatu gutzia umoretsu hartzen.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Barneko zure ezaugarriak modu onean kanporatuko dira. Segurtasuna adieraziko duzu.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Hausnartu, aztertu eta aukeratu zure bizitzan ona den guztia. Pasatzen ari zaren bolada txarrari aurre egiten lagunduko dizu horrek.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Jar itzazu helburu gutxiago zure harremanetan, baina izan zaitez argia eta zehatza.

GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Hitz gezidunak

	Apopiloak	Iturri konpontzailea	Gizon izena
	Izena	Idi, hitz elkarketan	
	Hitzarmen		
	Einsteinioa		
Azpijoko	Ukatzeko	Kontso. errep.	
Dentura	Kasik	Zerbaitek	
Interjekzioa		Salbu	
Parre-tarrak		Trebeak, abilak	
	Emakume izena		
	Zamorako autoetan		
Amaterak			Burdinazko lokarria
Gaujoko argia			
		Potasioa	
		Damutasun	
Bokala	... egin, goitik ari	Dago	
Kopuru bat	Pinu mota	Infin., bildu	
		Kopuru bat	
		Bokal errep.	
Serora			
Egur			
	Sexu emea		

Bila-bila 7



JAIOTAKOAK

Koldo Herrero Garai
Bergaran, maiatzaren 28an.

Iker Jimenez Molina
Aretxabaletan, ekainaren 5ean.

Iker Plazaola Acosta
Oñatin, ekainaren 13an.

Idurre Arizmendi Sueiro
Eskoriatzan, ekainaren 15ean.

Unai Muñoz Pombar
Oñatin, ekainaren 17an.

Beñat Madina Korta
Oñatin, ekainaren 18an.

Iker Fernandez Sedano
Eskoriatzan, ekainaren 18an.

Oihane Altube Urkia
Bergaran, ekainaren 22an.

HILDAKOAK

Patxi Oianguren Atxa
Aretxabaletan, ekainaren 20an,
83 urte zituela.

Jose Oñate Arabaolaza
Oñatin, ekainaren 21ean,
82 urte zituela.

Pablo Zabaljauregi Mondragon
Bergaran, ekainaren 25ean,
79 urte zituela.

Lino Intxauspe Perez
Aretxabaletan, ekainaren 25ean,
68 urte zituela.

Karmen Arriola Zugasti
Aretxabaletan, ekainaren 26an,
81 urte zituela.

EZKONDUAK

Maria Aranzazu Seco Moreno eta **Marcelino Osorio Lago**, ekainaren 23an, Bergaran.

Eva Ortega Bravo eta **Jesus Maria Guinaldo Garcia**, ekainaren 23an, Arrasaten.

Ane Miren Agirre Fernandez eta **Iñigo Arriaran Olalde**, ekainaren 23an, Arrasaten.

Rosa Castro bergarra eta **Luis Manchon** elorrioarra joan zen zapatuan, ekainak 23, ezkondu ziren **Bergarako Santa Marina** parrokian. Zorionak, bada, bikote



ESKER ONA

Jose Ramon Mendikute

Osintxun hil zen
2001eko ekainaren 8an,
66 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Zipriana Kortabarria Idigoras

Alexander Nafarrateren alarguna

Arrasaten hil zen
2001eko ekainaren 19an,
83 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA


Jose Madariaga Agirreolea

Txiki

Bergaran hil zen
2001eko ekainaren 19an,
61 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkariaren* ordezkartzetako batera.

BERGARAN, *Berrigararen* egoitzan, Barrenkalea, 33
943 76 92 71 (*Goienkaria*)

ARRASATEN, ARKOREN egoitzan; Otalora Lizentziaduna, 31
943 71 25 11

ARETXABALETAN, *Aretzagazetaren* egoitzan; Durana, 11
943 79 86 21

ARAMAION, Kintelena dendan; Nardeaga, 11
945 44 50 22

ELGETAN, Mari Asun Agirre dendan; Salvador, 26
943 76 81 90

ANTZUOLAN, Itzar liburu dendan; Kalebarren, 1
943 76 60 62

Goienkaria,
bailarako hedabide nagusia.

Astero 20.000 etxetan.
Prezioa: 10.000 pezeta.

Goiena Telebista

Goiena elektronikoa: goitb@goiena.com

Ohiko egitaraua eten egingo da



ATORREN ASTETIK AURRERA ALBISTE SAIOAK ETA JAIEI BURUZKO BEREZIAK IZANGO DIRA BAKARRIK

Ohiko egitaraua GOITBn ez duzue ohiko saio-
egitaraua aldatzeko aukerarik izango, bai-
n bada erabakiak ez ditugu Deba-
goieneko jaiak ahaztu nahi. Horre-
ngatik, egubakoitzean Eskoriatzako
teletatik eskainiko dizuegu *Berriak*
saioa, eta astelehenean berriz,
aramaiotik. Asteburu honetan San
Martin eta San Martin jai nagusiak
egitarautzen dituztela kontuan izan-
da, eskenatoki paregabea auke-
ratu dugu egubakoitz eta astele-
henerako.

Martizenean berriz, *Xeleberri*
saioa erreportariaren txanda izan-
gona. Hauek asteburuan, jairik jai
egitarautuko dira Aramaio, Bergara, Elge-
te eta Eskoriatzan. Eguaztenean
egitarautuko dugu jaiaren inguruko saio-
egitaraua. Monterron parkean Son
Caliente talde kubatarrak egindako
emeraldidiarekin. Hala ere, gogoratu,
egitarau albistegia eskaintzen
egitarautuko dugula.



San M0artinak direla eta Aramaiotik egingo da *Berriak* saioa, astelehen arratsaldean.

GOIENKARIA

Programazioa

Egubakoitza 29
20:00-20:30 *Berriak*
21:00 *Xeleberri Jaietan*

Zapatua 30
13:30 *Asteburuko*
programazioa

Domeka 1
13:30 *Asteburuko*
programazioa

Astelehena 2
20:00-20:30 *Berriak*
21:00 *Xeleberri Jaietan*

Martitena 3
20:00-20:30 *Berriak*
21:00 *Xeleberri Jaietan*

Eguaztena 4
20:00-20:30 *Berriak*
21:00 *Son Caliente* talde
kubatarraren emanaldia

Eguena 5
20:00-20:30 *Berriak*



Hezkuntza Eskaintza



Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- Ibilgailuen Elektromekanika
- Kontsumorako Ekipo Elektronikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako Laguntza Osagarriak

D Eredua

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Fundizio eta Pulbimetalurgia Bidezko Produkzioa
- Metal Eraikuntzak

A eta D Ereduek

MATRIKULAZIO DATAK

BATXILLERGOAK: Uztailaren 2tik 6ra.
 ERDI MAILAKO ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK: Uztailaren 2tik 6ra.
 GOI MAILAKO ZIKLOAK EPE BEREZIA: Uztailaren 23tik 27ra.
 ORDUTEGIA: Goizeko 9:00etatik 14:00etara

Sta. Teresa, 25
 Tel: 943 79 83 00 • 79 44 47
 Faxa: 943 79 44 37
 20500 ARRASATE

Etxebarri auzoa, z/g
 Tel: 943 79 79 00 • 79 79 43
 Faxa: 943 77 09 55
 20550 ARETXABAETA

Atzeskua

MAIDER OSA

Felix Aranzabal/Soinujole ohia

Nola ikasi zenuen soinua jotzen? Anaia zaharrenak ikasi zuen lehenengo, Zaloñako tio Bixenterekin. Gero soinua ekarri zuen, eta bigarrenak ere ikasi egin zuen. Ni azkenengo izan nintzen ikasten. Lehenengo belarriz ikasi nuen, anaiari entzunda, erraztasuna genuen-eta. Zazpi-zortzi urterekin hasi nintzen. Itsutu nintzenen, Bilboko gormutu eta nintzen eskolara joan nintzen, hamabi bat urte-

rekin. Braille sistema ikasi nuen han, eta solfeoa eta pianoa jotzen ere bai. Gero soinua jotzen neuré kabuz ikasi nuen, pianoaren sistema baitzuen. Bost kurtso egin nituen Bilbon, gerrak irten arte. Internatu nengoen bertan, eta gabonetan eta udan etxeratzen nintzen.

Ez zitzaizun zaila egin itsututa soinua jotzen ikastea?

Bai zera! Hori ez dago ikusi beharrik!

Debagoieneko ia herri eta auzo guztietan jo izan duzu soinua jaietan.

Santa Agedan eta Udalan urte askotan izan nintzen. Musakolan ere bai, San Isidroan.

Jaiak hasi eta bukatu arte bertan izaten

nintzen, etxera joan gabe. Donostian, Eibarren, Bergaran, Oñatin, Mondragoen... aritzen nintzen. Araba aldera ere joaten nintzen, Gasteizko seminarioa-eta, eta baita Bizkaira ere, Bilboko irratira-eta.

Zuk soinu handiarekin jotzen zenuen.

Bai, baina denetariko piezak jotzen nituen. Trikitixak, balsak, pasodobleak... Eskerrak Bilboko eskolara joan nintzen, eta asko ikasi nuen-eta. Kontziertoetan jotzeko piezak ere ikasi nituen. Mondragoen zinean ere behin baino gehiagotan jo nuen, eta baita pilotaleku zaharrenean ere. Batzuetan bertsolariekin aritzea ere tokatzen zitzaidan, Basarri eta Uztapiderekin batez ere. Adiskidetasun handia lortu genuen. Txandaka aritzen ginen, haiek bertsotan eta ni soinua jotzen.

Pieza berriak ikasteko nola moldatzen zinen?

Irratitik entzunda abiatatzen nituen, edo bistadun musikoren batek diktatu eta nik puntuekin papereratzen nituen.

Angiozarko baserriak nola joaten ziren jaietara?

Lehenengo trenez gerturatzen nintzen, eta Udalara, adibidez, Arteta baserriko behor gainean igotzen nuen, ni otzara baten gainean eta soinua bestean.

Lehiaketatan ere aritu zinen.

Bai. Erreterian, Hondarribian, Durangon birritan eta Portugaleten hartu nuen parte, eta aurrengo gelditu nintzen denetan.

Zaloñako osaba Bixentek hasi zuen musikaren bidea, eta kate hori ez da eten oraindik.

Ez. Nire hiru semeak ere musikariak izan dira, eta oraindik aritzen da bat soinua jotzen. Biloba batek, berriz, bibolina jotzen du Euskadiko Orkestra Sinfonikoan.


“Pieza berriak irratitik entzunda ateratzen nituen, edo bistadun musikoren batek diktatuta”

“Basarri eta Uztapiderekin adiskidetasun handia lortu nuen, askotan aritzen ginen batera-eta”

“Soinua jotzen ikasteko ez dago ikusi beharrik”

► Angiozarkoa / 82 urte / Soinujole ohia

AIPAGARRI



AGUSTIN TOLEDO
Bergara / Kirolaria

Urrezko domina lortu du gutxituendako Espainiako atletismo txapelketan. Agustín Toledo Bergarako Aspacen ari da eta Gipuzkoako Dordoka taldearekin hartu du parte ekain erdialdean Leganesen jokatu den txapelketan. Pisu jaurtiketan lortu du saria.



ASIER ATXA
Aretxabaleta / Txirrindularia

Asteburuan Leonen jokatu. Ako den Espainiako txirrindulari txapelketan lau debagoienar izango ditugu: profesionala, Jon Odriozola eta Iban Sastre; afizionatuetan, ostera, Markel Irizar oñatiarra eta Asier Atxa aretxabaletarra. Lehenengoak eguenean zuen erloju kontrakoa. Aretxabaletarrak, ostera, zapatuan jokatu du errepidekoa.

PASCUAL UNITEC
TELEKOMUNIKAZIOAK

Arrasate, 4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.

Aurrerantzean baita Bergaran ere

LASTER ZABALIK

Ibargarai, 5.

Tel. 943 76 97 07 - 08 - 09

Zatoz, aldatu zure puntuak eta eramán ezazu momentuan bertan sakeleko telefono berria.



Zure aholkularia
Telekomunikazioetan

Banatzaile ofiziala

Telefonica
MoviStar